

**Jean-Baptiste ORPUSTAN**

**ORZAIZEN BERTSU 'TA KANTU  
(17..-1942)**

**Recueil de chants basques en pays d'Ossès  
du XVIIIe au XXe siècle**

\*

# I

## Orotakoak (17..-1942)

### I. Borthagaraien kantua (\*)

(Airea : *Haltzak eztu bihotzik*)

- 1 Haltzak ezpaitu hezkurrik  
Ez gaztanberak hezurrik  
Ez nian uste bazela Jainko-semetan gezurrik.  
(...)
- 2 Urkugaraiko lephoan  
Harrixuriko gainian  
Ez kopeta hartu nuen neuretzat zorigaitzean.
- 3 Igande mezak erraitean  
Hortzako plaza erdian  
Bai et(a) ere deskargatu aphez beltxaren gainian.
- 4 Aphez beltxaren arreba  
Serora begi ñabarra  
Ni galeraziren nun bainan etzaun phizturen anaia.  
(...)
- 5 Baditut nik ehun behi  
Oi bere zezenareki  
Guziak eman nitzazke bizia ukhaitiareki.  
(...)
- 6 Aita zoazi hemendik  
Ene arropak harturik  
Ene haurrer (emazkizu) bere neurrian josirik.
- 7 Ez nuk ez joanen hemendik

Hire arropak harturik  
Baionan utziko diat arropak baino hoberik.

8 Antzarak doaz karrankan  
Donibaneko karrikan  
Borthagarai ere doa semiaren mina gogoan.  
(...)

9 Bothagarai Orzaizeko  
Borthairu Ezpeletako  
Hi Bordelen ni Baionan Oil zer gizonak galduko!

10 Erramuntto ene semia  
Erramu goizian sortia  
Damurik entzun behar duk: Ait' urkhatiaren semia.  
(...)

11 Urtheak zembat egun'tu?  
Hemezortzitan hogoi'tu  
Borthagarai gazte horrek hainbertze pertsu eman'tu.

(\*) « *Urzaiz* » *La vallée d'Ossès en Basse-Navarre*, Izpegi 2002  
p. 267-268

## II. Alegiako Aphezpikua. 1766 (\*)

(Airea: *Oi Betlehem*)

1 Berri handi  
Hortzaize aphezpikutoki,  
Berri handi,  
Prelat mur de Otsamendy,  
Toledakoa, ez segurki,  
Errentaz ez dago hobeki,  
Ez segurki.

2      Ehun millak  
 Gutiziako moltsan ditu,  
           Ehun millak,  
 Gogoan karrak pillak:  
 Gorthe bat du ederra hartu  
 Nun dituzia iduri baitu,  
           Ehun millak.

3      Ez Toledan  
 Abadesik ez da ikusten  
           Ez Toledan,  
 Artzipizku segidan;  
 Gurez da hori miresten,  
 Nihon ez dena baitu-ikusten,  
           Hark segidan.

5      Bozkarioz  
 Haran guzia da altxatu,  
           Bozkarioz,  
 Dohain hortaz da lorios;  
 Mendiak berdindu gogotu,  
 Han pasaiarazi nahi tu,  
           Bozkarioz..

7      Ez du falta,  
 Bere-eta abadesarentzat,  
           Ez du falta,  
 Modako kabrioleta  
 Bigarren ordenakoentzat  
 Lekhaio gembarazaiñentzat,  
           Ez du falta.

9      Jende-ostea  
 Bidetarat atheraturik

Jende-ostea,  
 Ezin asez ikustea,  
 Ez du galdetzen bisitarik  
 Kontent da hala ikusirik,  
 Jende-Ostea.

10 Ez du zeren  
 Gorte Prelaten moda duke  
 Ez du zeren  
 Galde egin bisitaren  
 Benedikatzea du merke  
 Nihork nihon badagi eske  
 Dohain haren.

11 Neure gisan  
 Thronu bat dautzuet egiten,  
 Neure gisan,  
 Jenden orhoitzapenetan  
 Mendez mende bizi zaitetzen  
 Zuen herrautsak pausa daiten  
 Zuen plazan.

(Egilea: OTSAMENDI apheza)

### III. Haran eder, Hortzaitze... Laudoriak (1766) (\*)

1 Haran eder Hortzaize	4 Jausten baniz menditik
Narrrik ez duzuna,	Zelhaidietara
Naizelarikan atze	Ura darrait ondotik
Ezin dut egona,	Errepiretara:
Ez zu laudatu gabe	Ibaia batek ditu
Ezin naite geldi,	Ederki fraskatzen,
Beldurrez naiz herabe	Halaber dute fruitu
Ez naizen gai handi.	Naharo ekhartzen.

- |   |   |
|---|---|
| <p>2 Nongo othe mintzaiak<br/>         Ontsa liro konda<br/>         Gutiak dira gaiak<br/>         Ezin daizte heda:<br/>         Urrezko xoil mihiak<br/>         Abantailla duke,<br/>         Hortzaizeren graziak<br/>         Kanta baitetzake.</p> | <p>5 Lur onari darraio<br/>         Jende bat arraia<br/>         Arrotza oro zaio<br/>         Duela anaia:<br/>         Ezti eta esnerik<br/>         Baizen ezten lurrak,<br/>         Zerk dakharke gaixtorik,<br/>         Zer baizen thresorak?</p> |
| <p>3 Mendian inguruan<br/>         Abren alhatzeko,<br/>         Nola izarrak zeruan<br/>         Ditezke udako:<br/>         Belhar punta bezenbat<br/>         Antxo eta ardi,<br/>         Non da ikuskari bat<br/>         Hau den bezain handi?</p>  | <p>6 Bertzen artean, ô zu<br/>         Gizonen lorea!<br/>         Fagorez har ezazu<br/>         Gaur floka nereaa:<br/>         Bertzela ezagutza<br/>         Ezin dirot marka,<br/>         Ordainez dut bihotza<br/>         Zuretzat, doblezka.</p> |

#### IV. Partuada tristea Hortzaitzetik (1766) (\*)

- |  |   |
|--|---|
| <p>1 Adiskideen utztega gauza<br/>         Au gauza tristeal!<br/>         Hau da bada ene pena,<br/>         Goan behar ezin egona.</p>         | <p>4 Alabaiñan goan behar naiz<br/>         Munduan biziko banaiz;<br/>         Othoitz nitaz Jainkoari,<br/>         Dudan amorez gidari.</p>          |
| <p>2 Uso tortoilla samurra,<br/>         Prest hidak hire nigarra,<br/>         Ikus dadin ene pena<br/>         Bihotzean zein den barna.</p>   | <p>5 Jaunak dadila grazia<br/>         Salborik naizen guzia,<br/>         Hel nadin arren bizirik,<br/>         Bidarraia iraganik.</p>                |
| <p>3 Utzten zaituztet bistatik<br/>         Bainan nihoiz bihotzetik:<br/>         Neure bizi aphurrean<br/>         Orhoituko naiz lurrean.</p> | <p>6 Banoha bai, partitzen naiz,<br/>         Orhoit zaitetzte nitaz maiz.<br/>         Adio dautzuet nigarrez<br/>         Sekulako gal beldurrez.</p> |

7 Ah, balin banu segidan  
 Nola arrai bethazala,  
 Banuke nondik konsola  
 Begitarte hau paradan!

8 Esperantza horrek nauka  
 Doidoi, xutik dilindaka  
 Ez dukedala penarik,  
 Zuen faltaz sofriturik.

(\*) *Hommage au Musée Basque*, Bayonne 1989, p. 522-537.

**V. 1898 . Sans autre titre que "OSSES". (\*)**

Airea: *Dama gastes charman bat.* (sic)

- 1 Mila zortzi ehun(ez) gehiago (\*\*) dena  
 Deklaratzera nua huna hastapena  
 Persuren emaiteko izan dut ordena  
 Orok kanta ditzaten ahalik gorena.
- 2 Aurten azaruaren hemezortzian  
 Aste undarrean larunbatian  
 Kabalkada eder bat gazten artian  
 Ikusi izan dugu Horzako herrian.
- 3 Hauxe da zahar-gaztek duten batasuna  
 Elgarren laguntzeko amodio huna  
 Oneski libertituz pasatu eguna  
 Berdin distirant hasi zuten biramuna.
- 4 Kabalaria zen anitz xarmegarri  
 Bolanten aitzinian ororen gidari  
 Oro segitzen ziren jaun kapitainari  
 Agur batzu eginez haren madamari.
- 5 Bolanten herrunka bazen zen luzia  
 Ezpaitzuten sobera plaza guzia  
 Anitz eder baitzen horier behatzia  
 Zoin eder egin duten plazara sartzia.

- 6 Musika gibeletik ari ziren jantzan  
Xoriak bezain arin zoin bere aldetan  
Agur eder batzu eginez artetan  
Etzuten dolorerik sendi zangoetan.
- 7 Artian bazituzten lau basa-andere  
Bat bestia bezein pollit ahalgerik gabe  
Guzier eman dute bihotzez ohore  
Ortzaizen jostatzeke badela ondore. (\*\*)
- 8 Zapurrak han zauden aizkorak eskuan  
Bertutez azkarrik zoin bere lekuan  
Jendea jarria tokitan gostuan  
Zapurren xerbitxia ttipiag(o) orduan.
- 9 Biba gazteria harekin musika  
Tanbur maior bat bazuten pollita  
Gorputzez adret eta begiez hardita  
Ongi arindu dute Horzako karrika.
- 10 Orzaizek eman du bere etsenplua  
Han baitzen ikustale plazan populua  
Baiz (sic) eta jaun mera gero konsellua  
Ohoratu dute bere sor lekua.
- 11 Herrian ez bedi nehor erreklama  
Oneski egin dute hasi duten lana  
Ez sobera min zu bortiar madama  
Gezurrekin ez juaun jaun apezengana.
- 12 Herrian bizi gira oro adixkide  
Aintzindari hunekin tropak fidel dire  
Herriko artzaina zu kontent bazire  
Zure behar orduko hainetan (\*\*\*) prest gire.



(\*) Ce chant a été publié dans la revue *Le Pays basque* le 19 décembre 1899. Le titre de l'air, une assez belle et entraînante mélodie traditionnelle, donné en tête du chant (*Dama gazte xarmant bat*) selon la coutume, indique une relative incertitude dans la graphie du texte qu'il a fallu régulariser selon la graphie actuelle sans modifier sauf exception la morphologie et la phonétique des mots. Le texte qui se dit fait sur commande (*izan dut ordena*) contient une allusion indirectement anticléricale (*gezurrekin ez juaun jaun apezengana* "n'allez pas mentir auprès de messieurs les prêtres") qui s'expliquerait par le contexte de l'événement: le curé du temps, le fameux curé antirépublicain "Monseigneur Diharassarry" écarté de Cambo à Ossès par l'évêché rallié à la République, qui ne supportait peut-être pas la garde nationale costumée et armée qui accompagnait les cérémonies de la Fête-Dieu, aurait voulu l'interdire. On ne sait qui fut le donneur d'ordre sans doute "laïque et républicain" ni la "dame monta-garde" (*bortiar madama*) susceptible de "mentir aux prêtres" sur la fête. On verra au n° VII le curé Larroulet décrire et louer la même fête en 1912.

(\*\*) Le texte porte la cacographie *opdore* certainement pour *ondore*. Divers traits signalent un locuteur extérieur, peut-être d'Ostabarès: *bun* au lieu de *hon*, surtout *beste* au lieu de *bertze* seul utilisé encore à Ossès jusqu'au milieu du XXe siècle etc. La forme générale est le basque parlé avec quelques licences poétiques de syllabes, sans élisions ni synalèphes.

(\*\*\*) Le mot *harinetan* est incompréhensible et dû sans doute à une mauvaise lecture du manuscrit.

## VI. Ortzaizen emanac en 1910 (\*)

- 1 Hemeretzi ehun eta hamargarren urthecari  
Dotzena bat bertsu berri nahi ditut ezarri  
Explicatzeko senhar-emaztec zer duten zor elgarri  
Zer amodio errespetu behar luketen ekharri  
Ez niz nehoi mintzo zembait ignoranti bakharrik
  
- 2 Badira ere ignorant edo chimple direnac burutic  
Senhar-emaztec bat egin behaute esposatuz geroztic  
Ibili gabe elgarri yoka ezin berdinduz nihuntic  
Elgarretaric separatuac makur ttipi baten gatic  
Aski goiz da berechtea yuaterakoan mundutic

- 3 Mundu huntan gireno beraz dezagun lagunt elgarri  
Emazteac zor baitio obedientzia guizonari  
Ceren etchian behar du utzi bere senharra aintzindari  
Senhar-emazteac beren dretchotan gauzac erreglan ezarri  
Jainko maiteak hori baitu bere legian ezarri
- 4 Emazteki bat bereciki badakit particularra  
Cantaturen dut zer maneran dabilan bere senharra  
Sosac bil arte alegia maite bazuen haren beharra  
Oro ken-eta zalapartaca emazteac bethi aharra  
Holacoa nor den ez dut erranen baizik dela Orzaiztarra
- 5 Orzaizeco emazte horrek badu cerbeit denendaco  
Elhe tzarra bera aski da herriaren nahasteco  
Oroz gainetic senharrari hainitz sofriarazi daco  
Pantalonac yauntzi zituen esposatu zireneco  
Laster eskaini errebolberaz erranez huntaz haut erreco
- 6 Gizon gaichua lotsatu hori ikusi zielarik  
Ustez emazteak pasatzen zuen balaz bulharretarik  
Hogoi milla liberarekin yina ameriquetaric  
Hek bildu arteraino ez zion eman penaric  
Bainan gero desafioca casa hadi etche huntaric
- 7 Gizon gaichua partitu berriz Ameriquetarat  
Penarequin etchean utzirik seme eta alaba  
Noiz eta berriz egin baitzituen hamar bat mila libera  
Emaztea yoan zitzaion cerca Ameriketara  
Belhaunicaturic hitzeman zacon bakean bizico gira
- 8 Bakian bizi izan dira bainan ez hainitz dembora  
Ekharri sosac bildu dazconean hartu lehengo manera  
Hantic goiti nahiago zuten aise bortako chakurra

Amac eta alabac biek ezin soporta han hura  
Azkenian igorri dute sakela hutsic campora

- 9 Martchoaren lehen goizean hor izan da herautsi(a)  
Gizon gaichoa yeiki zen emaztea ohean utzia  
Auzoco gizon batekin bortan entzunik mintzoa  
Zalapartaca yeikitzen da hori ez baitzion ontsa  
Eskalapoin ukhaldi batez itzuli dio copeta
- 10 Gizon gaichuari berriz ere yin zaio ezin bertzia  
Sos bat ere sakelan gabe kitatu du etchia  
Bainan norbait urrikalduric horren manera trichtia  
Eman diote behar duen sosa pagatzeko untzia  
Eman diote behar duen sosa pagatzeko untzia (sic)
- 11 Hoinbertze milla liberaco bereac utziric etchian  
Bertzeri sosa kenduric yoan behar zela untzian  
Gizon horren plazan dezagun eman gure burua  
Fin gaichto nola ez duen egin behar da izan aingerua  
Yaincoac ez du abandonatu horren fidelitatea
- 12 Emaztekoa orhoit zite yinen dela tenoria  
Yainco bat bada guzien-dako eginen du yustizia  
Ahal baduzu hara gabe garbi contzientzia  
Eta esplica alabari zuc egin duzun caltia  
Zeren horrek seguituco baitu zure exemplu guzia.  
(12-6-24)

(\*) Du recueil manuscrit intitulé "Cantos vascos copiados en Ossés Francia en el año 1947", copie de la main de J.-M. Ariztizabal, appartenant à Thérèse Penalva née Ariztizabal, La date finale est celle du recueil original écrit par Paul Jaunarena (décédé en 1918), maison Gaztenarena, probablement durant son séjour en Argentine, sur cahier à en-tête "Ferrocarril de Buenos Aires al Pacífico". Sauf la suppression des accents "é", l'orthographe originale a été conservée.

## VII. Bestaberri (1912)

- 1 Suiet hunkigarri bat hemen dut aiphatzen  
Bestaberri eder bat dugula Ortzaizen  
Gazte eta zaharrak hor dira beztitzen  
Batasun horrek ditu indarrak doblatzen.
- 2 Ekhnainaren hiruan ilun nabarrear  
Beilariak Lurdetik jin ziren batean  
Tanbur eta klerona karrika betean  
Beldurrik izan gabe bander'aitzinean.
- 3 Trixtezia guziak han ziren suntsitu  
Bozkario handitan girenean sartu  
Bestaberri eder bat laster da moldatu  
Orai artironokuan parerik ezpaitu.
- 4 Kontseil berek daukute etsemplu emaiten  
Harma bat eskuetan baitira agertzen  
Galtza xuri jauntzitan hain dute aphaintzen  
Bonetako pumpulak osoki gaztetzen.
- 5 Gazten artean etzen deuseren eskasik  
Gander' eta kokarda bazen baliosik  
Xingola ainitz mota eta aberatsik  
Elizaren erdian hain ziren urosik.
- 6 « Genoux terre » eiten dute belauna plegatuz  
« Debout » entzun denean kontrarat xutituz  
Harma atxikiz beti solido bi eskuz  
Holako soldadokin partidarik ez utz.
- 7 Jaun Etcheberry jiten bai eta Jaun mera  
Adixkide fidelen eskuetan zira

Guziak elgarrekin batasunian gira  
Oraikotik zueri jarraikiko gira.

- 8 Igande huntan dugu Jesus adoratzen  
Haren ordain bezala naiz hemen mintzatzen  
Ene esku eskuina eztut ez ahanzten  
Jaun bikarioak bainu osoki laguntzen.
- 9 Jaun kapitaina dugu ainitz plantakoa  
Iduri baitu dela arras hortakoa  
Ofizio hortan da orai laketua  
Geroz eginen dugu horrekilakoa.
- 10 Hainbat ederki daki soldadon manatzen  
Entzun duten orduko hor dute sinesten  
Horren boz saminak du harma altxarazten  
Eta bertze aldian soin gainian ezartzen.
- 11 Ofiziera batzu potretian eginak  
Herruntze'ta soingainak altzeiruz eginak  
Nun kausituko dira bertze bi hain finak  
Gahardun ta Ahizen eztira txarrenak.
- 12 Banderazainek dute besta hau nobletzen  
Aldareko harek du eliza beztitzen  
Gibeletik so'ginez zaut ainitz gustatzen  
Gorputz lerdenak ditu oro arranjatzen.
- 13 Karitatez betea dugu jaun suisa  
Menditik agertzeko ez da hori basa  
Begia erne eta xuxen du urratsa  
Polizaren egiten badaki hain ontsa.
- 14 Zer erranen dakot nik tambur maiorari

Xoraturik ginauden haren seriosari  
 Nehoiz eztu emanen eskandal'nehor  
 Jainkoak atxik bezo kalitate hori.

- 15    Badaki makilaren airoski ibiltzen  
       Erhi artetan zako zaluki kurritzen  
       Zenbait aldiz airean du « tank » hatzemaiten  
       Ez balu uste gabez lurreraino uzten.
- 16    Kleron joileak ziren ontsa hautatuak  
       Nun nahi agertzeko dira dohatuak  
       Hastetik finitzera trempu berekoak  
       Heien airer ginauden oro xoratuak.
- 17    Bezperetarik landa zer dugu ikusten ?  
       Jeneral bat zaukula plazarat agertzen  
       Erretretarat zela heldua zioten  
       Gibel aitzinez segur ontsa egina zen.
- 18    Zaldi eder batean solido jarria  
       Aspaldiko kaska bat krikan ezarria  
       Beztimenda zuela xuri 'ta gorria  
       Jendeari zitzaion hau xoragarria.
- 19    .....  
       Troparen aitzinean laster da agertu  
       Ordonantza ondotik hantxet du manatu  
       Guziak Arrosarat dira abiatu.
- 20    .....  
       Jaun axuanta dute auzuan salutatu  
       Eta elgarrekilan bihotzez trinkatu  
       Erranez behautela elgar sustengatu.

- 21 Bestaren egiteko bego Ortzaiztarra  
 Ehun soldadoz goiti zer tropa ederra  
 Elizan zoin eder zen holako bilkura  
 Kampoan ere on zen agertzeko hura.

Martin LARROULET Orzaizeko erretorak 1912-an.

### VIII. Katalin (1921) (\*)

- 1 Kantu berriak emanak dira Ortzaizeko herrian  
 Nechka gazte bat dela medio ahizeko kartierrian  
 Uste gabian tronpatu dute bere adin ederrian  
 Denbora zeno ezdu pentsatu zabilala lanjerrian
- 2 Lanjerrian ibili bide da ainitzekin neska hori  
 Eta ainhitzetan dabilana ez jakin nun den erori  
 Nunbaitik orai jarria baita estomaka frango lodi  
 Bere burua eskaintzen du iduritzen zaionari
- 3 Aintzina hortan mutiko bati pasatzean erran dako  
 Errak to nahi nuka ni hartu hiretzat emaztetako  
 Hak errepostu ehaut ez nahi sobera haiz enetako  
 Enetzat baino hobe hiz orai kochkazaile harendako
- 4 Orduan nechkac abiatu dio ehun mila larderia  
 Nahi ala ez behar nuk hartu in duk arrailleria  
 Ez dakik noski nola inaden orai Frantzian legia  
 Nechkatuek orai aski diagu nor nahi den erraitia
- 5 Mutikoak orduan ihardetsi dio ez erran eni elerik  
 Frantzian ez dun orainokoan egin holako legerik  
 Nic hi hartzeko emaztetako nihaurek nahi gabarik  
 Seculakoak sahetsian ditun balinbadun bertzerik

- 6 Orduan zaio bertze bati horiek atchikiz berekin  
Zuzena lukek to hi eta ni ezkont giten elgarrekin  
Besteak errepostu hau - Katalin ez enekin bainan bertzeekin  
Hik dunan haurra niganik bada sortu behardun hortzekin
- 7 Haren mentura ere charra da orai duen solhasetan  
Eta pachuerrak balin badira bat ezin bortcha deusetan  
Nechkato gaztea prudent ez bada behar diren hurratsetan  
Gerokotz tankolari guti du leionduan arratsetan
- 8 Zonbaitek hola pasatzen dute anhichko gora behera  
Katalinek ere chaz danik aurten kanbio du manera  
Aurten gizon gei bat ezin harrapa chaz bazituen sobera  
Presuna gaztek horren gainean etsemplu hartzia hobeda
- 9 Berrogoita hamar libera phostaz izantu numbaitik  
Hango Phostan sartiak ziren duda gabe Mehainetik  
Kontzientzia gauza beharra garbitzea denen gainetik  
Sos horren igortzaleak ere arrangura badu barnetik
- 10 Orai amak erraiten dako soleimendu arina  
Katalin ez dun hik gehiago adituren mutchurdina  
Badakit ama nola ditaken egina dut etsamina  
Hemendik goiti deituren naute antchua ume egina
- 11 Katalin hori sehiguan ere enheatu zen gazterik  
Lana ez maite eta alferrak seculan ez du bertzerik  
Oroz agradaz eta gerokotz ezarri dute beterik  
Plazerren ondoko penak ditu orai hor dago trichterik
- 12 Zuzen liteke trichte dagona norbeitek dezan kontsola  
Orai bezala utzi balute etzen trichtatuko hola  
Denbora batez guziak akort orai mila parabola  
Bizkitartean gauza hitsa da ukatzia bete odola



- 13 Mila bederatzi ehun eta hogoita batian  
 Kantu hauk emanak izan dira urthe berrian  
 Hobendunaren ernarazteko bestiak utziz gostian  
 Orhoit dadiela mortel girela memento batetik bertzian  
 (Oxobo) (\*\*)

(\*) Sur feuilles volantes dans le même cahier que le n° V et même écriture.

(\*\*) Le nom d'auteur "Oxobo" est inconnu; il ressemble à "Oxobi" nom sous lequel écrivait l'abbé Jules Moulier natif de Bidarray (1898-1958).

### IX. Arrosa (1923)

Airea : *Agur adixkidea...*

- 1 Bertsu berriak egun baitugu Xokotik ;  
 Hortan usatua da frangotan engoitik.  
 Ez niz ni ixilduko zahartua gatik.  
 Zer berri ederra den heldu Arrosatik :  
 Bethikotz berexia dela Orzaizetik.
- 2 Hamabi kontseiluko ditugu ezarri,  
 Denek atxik dezaten tinkoki elgarri :  
 Jaun mera, axudanta, erran bezain sarri  
 Ohor'eman diogu hemen gei denari :  
 Denetan hoberena Martinto Mendiri.
- 3 Herri guzia zauku hor bozkariatzen,  
 Bihotz onekin baita horier fidatzen.  
 Michel, gure agintzez ginen gu orhoitzen ;  
 Arbasoak dituzu oraitik gainditzen ;  
 Buru handiko dener zare nagusitzen.
- 4 Orai nahi bazintu bi lerro egorri,  
 Beira eztadin egon, zure koinatari,  
 Haren indarra dela goraki ageri.

Berexiak bethikotz eskarrak jaun horri,  
Egiazko eskualdun Laborde Mendiri.

- 5     Lagun onak dituzu, zaita iduritzen ;  
Lehen ere zurekin hor dira usatzen  
Jaun axudanta, Barrot, orotan famatzen,  
Aspaldi bere lana baitu ezagutzen  
Herri guzia zuer trankil da fidatzen.
- 6     Agian Jainko onak emanen dauku xantz !  
Beraz ongi egina ez dezagun ahantz.  
Artetan izan daite ximixt eta orzantz.  
Entzunik ere badu horrek zombait azantz.  
Ororen zerbitzari Arrosan Betrixantz.

Michel BETRICHANTZ, 1923 abendoan (\*)

(\*) 1923-ko uztailaren 2-an agertua zen Orzaizeko herritik  
Arrosakoaren berexteko erabaki ofiziala. Ikus *Urzaiz...* orr. 231-233.

### **X. (Sans titre) 1923 (\*)**

*Airea: Urtzo churi pollit bat Anbauz aldean*

- 1     Hemeretzi ehun eta ogoita hiruan  
Sujet bat agertu da Ortzaize aldean  
Agertu beharra zen juanden aspaldian  
Ez baitzen agradable zabilan moldean
- 2     Esplikatzera noa nola zen moldia  
Argitzea zuzendu itsu den jendia  
Hobeki indezaten jaun horri guardia  
Erosiz ala ebatsiz saltzen den ardia
- 3     Orai artean nehork etzuen phentsatzen  
Iduriz ardikari serio bat baitzen

Gero kechatu dira ardi ainhitz galtzen  
Hainbeste ardi falta norat othe zatzen

- 4 Azkenian galduda aspaldi beharra  
Haustera jiten baita dabilan pegarra  
Iraun balako etzuen ofizio charra  
Aberastera zoan donado zaharra
- 5 Hola aberats tera giten entsea  
Pentsa dezagun beti eternitatera  
Bi auzok hatcheman diote ebatsi ardi bedera  
Bai eta biak kendu bortz na ehun mila
- 6 Beste auzo bat jua da horiek jakin eta  
Nik ere baditiat hamar ardi falta  
Horienak bezala hik ebatsi tuka  
Hiriak inen dik edo etzakala uka
- 7 Orduan zen lanian ukatzeko lotsa  
Batto aithortu dio trichterik biotza  
Irisarryn saldu dut ardi adar motcha  
Besteak ene gatik nunbait hor dabilta
- 8 Horrentzat eskaini dio berrehun libera  
Umilki galdeginik hola contencitea  
Bai bainan beste heien saila nun othe da  
Biharamuneko denak jin zazta etchera
- 9 Laugarrena jua zako bestenak entzunik  
Ardi bat falta diat badakika berririk  
Ez ez ez dut obenik zurian segurik  
Ardi buru bat hantchet ikusia dut nik
- 10 Ofizio hori dinak baitu inguria

Gezur bat erran dio egia iduria  
 Hantchet ikusi dut nik ardi baten buria  
 Oro aitortuz behar baitzuen dirua

- 11 Horri kondatu dazko terribleko penak  
 Hek nituen lehenak bai eta azkenak  
 Bainan nork sinets orai erten ditienak  
 Ainhitz ebats dezake bat iten duenak
- 12 Jaun horren etchian dagon osebak erran du  
 Erramunen ohoria deurrak jua du  
 Bederen lehenago balitzan ezkondu  
 Orai nola behardu emaztea bildu
- 13 Holakuak ez dira errechki ezkontzen  
 Lehen abiatu eta gibelerat juaiten  
 Bester arizanikan kantuen ezartzen  
 Guzien arabera bera gurbila zen
- 14 Nola baitugu hemen girichtino legia  
 Erranen dut garbiki denentzat egia  
 Baldin nahi duenak hilondoan zeria  
 Eman bezozuzenki bakotchari beria
- 15 Horra beraz Erramoun nik eman ordina  
 Satisfatzen oro zuzen behar dena  
 Egin guziez atchik bihotzean pena  
 Hola imitatzeko "Maria Madalena"

\* Du même recueil que le n°VI.

## **XI. Gure Arrosa zena (1924)**

- 1 Arrosa jua zaukula ihes Orzaizetik,

Eskual-Herri guziak badaki engoitik.  
Kontent balin badira, oihu hoik zergatik ?  
Ixil da atsegina, denian bihotzetik.

- 2 Ur handia zen junta Jainkoak emana,  
Orzaizek betidanik onhartzen zuena.  
Jaun horiek bertze bat bazuten egina,  
Orzaizeren erdia harat zeramana.
- 3 Hunen ardiesteko zoin diren bermatu !  
Emaztek konseilu ‘ta gizonen espantu...  
Harrabots handi hori bai laster suntsitu,  
Jujek guk galdegina dutenian onhartu.
- 4 Betrixantz koblaría ongi da mintzatzen,  
Arrazoina lañoki badaki finkatzen ;  
Micheli zatiño hau polliki ezartzen :  
« Buru handiko dener zare nagusitzen » !
- 5 Michel adixkidea, zer duzu pentsatzen ?  
Hoinbertze lan egin ‘ta guti ardiesten,  
Orzaizen ez Arrosan nehor kontentatzen,  
Molde hitsean duzu meragoa uzten.
- 6 Arrosatar maiteak, jakina dut berri,  
Dolutan zaretela eginik bi herri :  
Emazue aharran orai hor elgarri.  
Goxoki eginen dut Orzaizetik irri !

Baigurako semia, 1924-ko urtarrilean.

## XII. Kantu berriak 1933-an

Airea : *Agur adixkideak Jainkoak egun on*

1na

Aphirilean Phazko biharamunian  
Arrosa deitua den herri airosian  
Phesta handi bat zahar gaztien artian  
Jostet(a) asko khusi dut dembora guzian  
Hunen parerik ez bat oi ! ene bizian.

2na

Nehork ez dir(o) egin guzien gogora  
Gau egun Jainkoa dut othoiztu ardura  
Sasoinik hoberenaz zintzaten fagora  
Zuen phesta ederra gindezan ohora  
Uria atherturik sanotu dembora.

3na

Atsaldeko hirurak ziren joiten ari  
Plazarat arribatzian kabalkada hori  
Musika aitzinean bandera gidari  
Memento hura baitzen zinez hunkigarri  
Plazerrak egin zaukun bihotzean gaindi.

4na

Hirur hogoi dantzari or(o) ederki ari  
Zorrikan etzutenak Xuberotarrerri  
Oinak sano zuztela aise zen ageri  
Inhara batzu airian zoatzil(a) iduri  
Atsegin handirekin bazuten behari.

5na

Ongi esplikatzeke sobera guziak  
Zaldun, oinezko, zirtzil, uxer, notariak,  
Abokat ala juje, prokuradoriak,  
Denek bete dituzte bere eginbidiak  
Liberti-arazteko loriagarriak.

6na

Jaun gazte kapitaina oron aitzindari  
 Ber' dembora tropetan egona iduri  
 Nork etzion obedi hunen manuari ?  
 Begiak itzuliak denak beira horri  
 Eta ez gutiago horren Madamari.

7na

Dama hori orotan xarmegarriena  
 Bilo hori, kolore xuri-gorri fina,  
 Jantzi distirant zeta xuriez egina  
 Presentzia amultsu maitagarriena  
 Iduri baitzinduen zeruk(o) erregina.

8na

Harriet Aldudeko koplak(i) aipatuak  
 Baditu segurr bere merezimenduak  
 Burrustan heldu zaizko ahora pertsuak  
 Zaharrak nola gazte adinetakuak  
 Han iduki gaituzte denak xoratuak.

9na

Agur eta hore Arrosatarrerri  
 Laudorioak zuen phesta ederrari  
 Entregu ziretela obretan ageri  
 Hiru mila (i)khusliar zaizuel(a) ethorri  
 Milesker bihotzetik horierr orori

10na

Pertsu miragarri hau buruari lotu  
 Suietentzat arrazoin sentsuzkuak baititu  
 Ez dute zeren hoiek bater(e) ofentsatu  
 Gazterik etzen beharr hola enganatu  
 Hitzak emanaz geroz behaute komplitu.

11na

Hamabi pertsu ditut zartzen paperretan  
 Lasterr heda ditezen bazterr guzietan  
 Phesta arraro hunen orrhoitzapenetan

Orok kanta ditzagun bozkalentzietan  
 Bai orai eta gero menderen mendetan.  
 12na  
 Huntan gelditzen nauzu neure ximplezian  
 Barkamendu eskatuz Arrosa guzian  
 Hutsikan egin badut zuen eretzian  
 Herrakunde gaixtorik ez harr bihotzian  
 Luzaz bizi gaitezen batasun onian.

OSPITAL, Ortzaiztarra

### **XIII. Orzaizen emanac 1937.**

#### **Hazaroaren hameka. (\*)**

Airea: *Cailla kantuz ogipetik uztail-agorriletan.*

- 1 Mila bederatzi ehun eta hogoita hamazazpi;  
 Azaruaren hameka, dembora ona ezti.  
 Zeru zola urdin eta iguzkia garbi.  
 Gudatu girela ordian, aithortzen dut nik goraki.
- 2 Bildu gira goizian, bederatziak eta herditan.  
 Alegerarik guziak guharen bihotzetan.  
 Elizatik es urhun, ostatuño batetan.  
 Tintta bat edan ginuen ehundik partizeko airetan.
- 3 Tambour kleronak aintzinean, combatanak lau lerrotan.  
 Aintzinachago yuan ginen, gelditu meriako borthan.  
 "Au drapeau" hau yo ginuen banderaren ohoretan.  
 Eta gero mezan sarthu oro hamar orenetan.
- 4 Meza bat ederra zen, ez da dudatzeko.  
 Meza hori eman zen soldado hilendako.  
 Bere hodola ichuri dutenak Frantziaren salbatzeko.  
 Zer exemplu ederra hori herriño batendako.



- 5 Hamar orenetan beraz meza hori da hasi.  
 Prediku bat ederra bazen, nahi zuenak ikasi.  
 Gerla demboran soldadoak nola izan diren bizi.  
 Apezaren predikuak denak ditu inharrosi.
- 6 Athera gira helizatik meza hori finitu 'ta.  
 Eliza borthan inguratu han ginenek monumenta.  
 Paper bat eskian ikusi gure Presidenta.  
 Denak seriuski yarri hilen izena adituta.
- 7 Horiek oro hola eta yin zerauku eguerdi  
 Ostalera berantestia (sic) ez baiginuen guk nahi.  
 Guziak hor lotzen gira Gaharduko bideari.  
 Su-pindarretan, tambur kleronak han baitiren ari.
- 8 Joaiten gira eta sartzen ostatu eder hortan  
 Lore ederrik baizik etzen bazter guzietan  
 Mahain ederrak ezarririk hiru sala pollitetan.  
 Koziner eta zerbitzariak behar den itchuretan.
- 9 Mahain hetan yartzen gira oro errespetuz.  
 Han berian yarri orduko aperitifak hartuz.  
 Salda huna edan eta arno una (sic) yastatuz.  
 Gure botzak bazoatzin gero 'ta gehiago azkartuz.
- 10 Horra beraz zoin kontent giren gure bazkaria eginik.  
 Bazkaldu gira oro gostura, ez baitzen yeuseren faltarik.  
 Ni ere hemen nago kurayé handi bat harturik.  
 Heldu den urthian joaiteko ez nago dolaturik.

Mendiko Choria.

(\*) Du même recueil que le n° V. Ecriture différente.

#### XIV. Bachenabarren. Orzaizen ... Gure Eskola (\*)

- 1     Pertsu berri bazuen (sic) hasten niz emaiten.  
Sujeta ezin ukanez ez bainiz penatzen.  
Eskol'maile onik etzela Ortzaizen.  
Eskual-Herrian fama hori da hedatzen.
  
- 2     Hemen baditugu ahur bat emazte.  
Bospasei aise hori, zahar eta gazte.  
Frantziako legetan bezikan balute.  
Laster Herrian gerla zibila ginuke.
  
- 3     Otsoa zikunean (sic) artaldean sartu.  
Artzain ona baiginuen laster da ohartu.  
Bildotser nahi zela lehenik jokatu.  
Hek behar zituela geroko funditu.
  
- 4     Biba beraz Orzaitze, eta Populia!  
Heiendako berdindu uda ala neguia.  
Moltsa azkar dute eta ideia handia.  
Laster egin dute hor eskola berria.
  
- 5     Juan (sic) Apezpikua gero ethorri herrira.  
Gure eskola onaren benedikatzera.  
Gazteria goizian joanikan bidera.  
Artean ekharri dute plazaren erdira.
  
- 6     Nahi zuten turnatu jina zen bidetik.  
Bizikletak aitzinean, zaldizkoak ondotik.  
Ez da usu ikusten halako triumfik ....  
Bertzerik ikusi gabe, joanen niz mundutik.
  
- 7     Noizbeit ethorri da gure zoriona.

Hortaz ginuen bethi bihotzean changrina.  
 Nunbeitik ethorri da manatzale ona.  
 Azkenian orhoitu da, Salbatzaile Jauna.

- 8 Bakia desiratzen dut mundu guziari.  
 Eta partikulazki gure Frantziari.  
 Agian obratuko du Yanko Janunak hori.  
 Odola ikusi gabe lurrean igeri.

Baigurako Artzaina.

(\*) Du même recueil que le n° VI.

## **XV. En 1938. Chanson basque. "Orzaizen"** **Acheria Dantsan. (\*)**

Airea: *Kattalin ttukuttun...*

- 1 Pertsu berri batzuen hasten niz emaiten.  
 Ene bizi pochia nola den pasatzen.  
 Gazte dembor' eman dut ait'amen laguntzen.  
 Nahiz sekulan ez den sobera pagatzen.
- 2 Berrogoi urthe badu Baigura gainean.  
 Artzain abiaturik ene artaldean.  
 Pertsu hoiem emaiten hari nintzanean.  
 Herrirat beha nintzan dorreko hegian;
- 3 Lehen otsoak orai aldiz acheria.  
 Nehondikez diot zeint ene artaldia.  
 Batian odola, bertzian haragia.  
 Bethi gaizkiari ari ene ihizia.
- 4 Harri baten gainean guardian jarria.  
 Ene begira zagon gure acheria.  
 Ni ere azkeneko harmetan jarria.

Galduren behar baitu gaichoak auzia.

- 5 Acheri zango luze, hor zabilan kurri,  
Balentria espantuz langile hoieri.  
Bainan deux eman gabe, nihun ez ageri.  
Egun batez gu ganat nola othe zen jin.
- 6 Iragan egun batez izan da Baigorri.  
Han ere nahi zuen zerbait obra egin.  
Bainan deus ezin pasa hortaz du bihotzmin.  
Hori gertatzen zaio jaunek hilari.
- 7 Beherechago jinik berriz olharretan.  
Behaka nindabilan bazter guzietan.  
Hanchet hatzemaiten dut hau ahaldun (sic) plantan.  
Harri baten gainean zagola balantzan.
- 8 Bildots eta oiloak jan ditu chilotan  
Nehork pentsatu gabe zer zuen gogoan.  
Ichilik egon balitz plazatu lekuan.  
Bertze urusagorik etzaiken munduan.
- 9 Aneiak batut jinak Kaliforniatik.  
Gauak eta egunak kampoan emanik.  
Nik orai ez baitut acheri beldurrik.  
Etchean egonen naiz guziak utzirik.
- 10 Ni ere dohakabe jin nintzan mundura.  
Geroztik pasatu dut ainitz arrangura.  
Aberastu nahiz joan zauta dembora.  
Orai numbait han bainiz! Adios Baigura?...

Baigurako Artzaina.

Ces chants sont fait par Monsieur l'abbé Jean Batiste (sic)  
Calena Mendiboure

(\*) Du même recueil que le n° VI.

## XVI. KANTIAK (1939)

Airea : *Aspaldiko demboretan, gauaz eta beti...*

- 1 Eskola berri(ño) bat (\*) badugu Orzaizen  
Anitzen gostuko, horren beharra zen  
Dudarik ezt(a) ezkinen aski eskolatzen  
Zonbaitentzat sobera, hori da gertatzen.
- 2 Hori egin dugu, batek kaprizan harturik  
Nortzu ditaken ezta ertiaren beharrik  
Anitzen galtzeko bat aski da bakarrik  
Erraiten baita, hori hala da segurik.
- 3 Horra nun dagon xutik eskola berria  
Nolako puxantzian den gure herria  
Denek ekharri dugu zur eta harria  
Hol(a) aise segur egin da etxe berria.
- 4 Egiteko mintzatu 'tu zonbait aitama  
Hortarat gaiten beraz herritarrak berma  
Egiten baduzie porte-peon lana  
Muntatuko dut gero beharko den soma.
- 5 Lan aski ukan dugu harrien partetik  
Bainan orai egin da pena guzien gatik  
Guk uste fini zela, erran zutenetik,  
Sos galdez hasi zauku prediku lekutik.
- 6 Horrekin horrela da izanen engoitik  
Jaun handi badabiltza ahulen partetik  
Zer nahi pretenitzen buruan harturik,  
Nehork sos guti dauka aphezen eskutik.

- 7     Holaxe doa beti horien ametsa  
       Elgarrekin irr(i) egin dezakete ontsa :  
       Sobera erran gabe, badute othoitza,  
       Predikuak artetan, hiltzez ditent lotsa.
- 8     Lehen oro joaiten zen gobern(u) eskolara  
       Berdin gizon kapabliak hortik heldu dira,  
       Herriko seme frango apheztasunera ;  
       Kontrakorik ez dute, egia sobera.
- 9     Anitzek parte dute segur errienta  
       Zerbitzu emaitako hoberik ezpaita  
       .....  
       Nihundik aldiz hori eztiot soporta.
- 10    Herriarena obra, beraz gisa hortan  
       Jendiak lana baduke, berrira denetan,  
       Bainan alda daiteke, ere mende huntan :  
       Zinema, jantza-leku, ondoko urtetan.
- 11    Batugu Mola ‘ta Franco (\*\*) direnak deitzen :  
       Mola gizon abila, guziek maitatzen,  
       Ezta Franco bezenbat politikan sartzen  
       Deputatu behar luke segur Parisen.
- 12    Bertsuen emailea eztut erran nor den  
       Arrangura duenik ez ahal da hemen  
       Erraitekorik badu plazer daut eginen  
       Ihesari lasterka ezpainiz emanen.

Eskualdun jaun bat

(\*) Chorhy erreterak egin-arazi zuen mutikoendako « Saint Michel » eskola berria, Etxebertzeko lurretan. « Michel » izena, 1926-an Léon

Laharrague Argentinar, Etxebertzea bere lurrekin erretoraren eskuan uzteko erosia zuenaren aitaren (eta Orzaiztarraren) izena eman omen zizakola eskolari zioten. Jabe horrek berak egin zuen gero 1947-an Yrigoyen erretorarekin etxe horren erabiltzeko antolamendu berri bat.

(\*\*) "Mola 'ta Franco" Espainian errepublikaren aurdikitzeko 1936-1939 urtetan egina zuten jazarraldiko bi buruzagi nagusien izena emana zizeen herriko bi etxeko jauner, edo jazarraldi horren alde agertu zirelaketz edo politikan alderdi bereko.

## **XVII. Gure eskola (1939) (\*)**

Airea : *Aurten arnoa merke da*

- 1     Ortzaizen orai, baigira ainitzak pertsulari,  
Pertsia emaiten tugu, behar ordian, elgarri.  
Ohorea mendratu gabe, nahitarat, nehor.  
Jendiak balaki nor giren, baginuke behari.
  
- 2     Pertsulari batek baitu suiet ainitz aiphatzen  
Jaun horren jakitateaz nehork ez du dudatzen !  
Koblak gauaz etxetarat baititu barreatzen,  
Ez ditake lanian hori egunaz ask(i) akhitzen !
  
- 3     Pertsietan eskola du biziki maiz aiphatuko,  
Ederregi baitateke zonbait jenden gostuko ;  
Obra hori egin baita nahi dutenendako,  
Bertziak utziko ditugu Stalinen eskolako. (\*)
  
- 4     Lan hori egina baita ontsa karkulaturik,  
Ortzaizeko gizon ainitz elgarrekin hitzharturik,  
Eztitugu behar haurrak kominixtak altxaturik !  
Eskual-Herriko ohidurak datxizkagun azkarrik.
  
- 5     Hirugarren pertsian du gezur gaitz bat ezartzen :  
Jaun hori ariko zauku jendiaren enganatzen,  
Orok dutela harria eta zura ekhartzen.

Ekharri gabe egonak ontsa tugu ezagutzen.

- 6 Laugarrenak ere badu gezur bat xuxentzeko,  
Alabainan zerbait behar pertsutarat heltzeko.  
Gure gainian jaun ertorak gastuen pagatzeko  
Khondatzen du, ez gitzaizu ondotik ibiliko.
- 7 Iraupenik eztu izanen, jauna, zure xedetan,  
Gauzak itzul ditazkela ondoko egunetan :  
Konfientxiarik ezukezu eliza-gizonetan,  
Esperantxa gehiago jantzako lekuetan.
- 8 Etxe hori egin dugu mutikuen eskolako,  
Ebatsi nahi daukuzu jantza lekuetako ?  
Ohointza hori egin gabe, kasu duzu egiteko  
Hemen ere oldar ez diton Mola eta Franco !
- 9 Otsailaren zazpian da gure eskola ideki  
Ahaizeko-menditarrak jin baitira beroki.  
Ahaize lotsatu zauku Hortzaren gatik naski !  
Gahardu joka zaitekeen egin baino hobeki.
- 10 Hortzan eta Gahardun da jende ainitz trompatzen  
Eskoletan ezpaitute den hoberena hautatzen !  
Horien eskolak eztu Jainko beldurrik emaiten  
Jainko beldurrik nehoi makurrik ez ekhartzen.
- 11 Zonbait hola izanik ere ez da arranguratzeko  
Eskola berriak eztu leku ainitz betetzeko,  
Jende gehiago baita kapable jakiteko  
Eginbidia nun den eta... sailian xuxen joaiteko.
- 12 Eskolan ibili hurrek ezta kite agurtzen  
Jaun batek ezpaitzitu gisa hortan manatzen,



Komunixten moldiak baitu gauza hori onhartzten :  
Aitamek ari beharko horren hutsen estaltzen. (\*\*)

- 13 Nahiz eztudan ahalik zure izendatzeko,  
Norat biltzen ote ziren errex da pentsatzeko .  
Usaiarik nik ere eztut gibelera joaiteko :  
Hortakotz, jauna, gelditzen niz zure zerbitzuko.
- 14 Jaun apezpikia jinen da laster (\*\*\*) Ortzaizerat  
Gure obra ederraren untsa beneikatzerat  
Behar den argi ororen guzier emaiterat  
Lan hori egin dutener komplimend(u) egiterat.

Biba Orzaize, 1939.

(\*) La version manuscrite de ce texte, réponse au précédent n° XV, dans le même recueil que le n° V, écriture différente, comporte un titre plus complet ("Ortzaizen emanac en 1939. Gure Eskola"), une ponctuation très détaillée, et quelques variantes, les plus significatives mises ci-dessous strophe par strophe. Manque la dernière strophe n° 14.

(\*\*) Bazioten « Eprinchart » izeneko errientak Orzaiztar batzu komunixten alderdira itzul-arazi zituela.

(\*\*\*) Imprimatua da « hoitazazpian Ortzaizerat », hitza (« hogoi-ta zazpia » Orzaizen) azkarki laburturik ere, berttua behar baino gehiago luzatzen baitu. Aireak eta hastapeneko bertsuek erakusten duten neurri zuzenari (8+7 : 15 silabakoa) ahal bezainbat jarraikitzeke, bertsu andana bat zuzendu da hemen, ez beti behar zen moldean (J.-B. Orpustan).

Quelques variantes du recueil manuscrit (voir note au n°V):

1 ...  
Jendeak balaki nor giren. baginuke, bai, behari.

2 ...  
... nehork ez duke dudatzen!  
...

Ez ditake egunaz, hori, lanian biziki akhitzen!

3 ...

Ederregi baititake, zombeit jenderen gustuko;  
Obra hori egina baita, nahi duten guziendako!  
Bertziak utziko ditugu, Stalinekin eskolatzeko.

5 ... gezur bat gaitza ezartzen,

6 ...

Gure gainean jaun Erretorak, gastuen pagatzeko.  
Kondatzen du; eta ez gira zur eondotik (sic) ibiliko.

9 ...

Gahardu joka zitekeen, egin den baino hobeki.

10 ...

Dutelarik, eskoletan ez hoberena hautatzen.  
Haiuen eskolak haurrer ez du Jainko beldurrik ezartzen,  
Jainko beldurrak nehoi ez du makhurrikan ekhartzen.

11 ...

Gehiago jende baita kapable komprenditzeko.

13 ...

Hortakotz beraz gelditzen niz, jauna zure zerbitzuko.

### **XVIII. Orzaizen krima ! (1939)**

*Orzaizen ezagutzen den aire batean.*

1 Maule aldetik zer da (aire berri) hori ?  
Haize bortitz, ximixta eta ihortziri  
Hedoiaren hegala beltzik da ageri  
Orzaizeko Jaun Mera, kasu eman zuri  
Aire gaixtuak nunbait behar du erori.

- 2 Galerna bortitz hori zerk ote du phiztu  
Mauleko Su-Prefeta zerk hola khexatu ?  
*Krima* harrigarri bat Orzaizen gertatu  
Eskol-etxe berria hor benedikatu  
Odola horrek diro bururat altxatu.
- 3 Hor haizatu Debruak noraratu dira ?...  
Abartiagako maldan, omen, petik gora  
Lewy-ren jauregitik jo dute Maulera (\*)  
Ez uzten Su-Prefeta lorik egitera  
Laster iskribatu du berak Orzaizera.
- 4 « Erradazu, Jaun Mera, zer zare bada zu  
« Etxe benedikatzen, zentzua nun duzu ?  
« Oraiko demboretan, ez da hori haizu .  
« Errepublikak zeren nahi duzun galdu  
« Barkamendu dautazu bekarko galdatu. »
- 5 « Barkamendua, Jauna, ezpadut obenic  
« Eztut ustez nihori galdatzeko lanik  
« Egin dutan egintzaz ezpaitut dolurik  
« Ez naiz berriz hasiko, ezpadut biderik  
« Eztu horrek galduko Errepublikarik. »
- 6 Gure Jaun Su-Prefeta arras da khexatzen  
Ezpaitu holakorik ardura aditzen :  
« Jauna, nagusi bati, zer hola mintzatzen ?  
« Nun ikhasia duzu jendekin bizitzen ?  
« Iduri duzu nitaz zarela trufatzen. »
- 7 « Ez nuen uste, Jauna, egia erranez  
« Trufa nindaitekela zu iduri Jaunez  
« Zer nahi gerta dadin, mintzo naiz zuzenez  
« Jakinik horrenbertze minbera zindenez

- « Jinen nitzaizun segur ukhurrak eginez. »
- 8 « Holako *krima* batek zer duen merezi  
« Nahi dautzut, Jaun Mera, egun erakutsi,  
« Katixima berrian baitut nik ikhasi  
« Othoitzik egitia zenbat den itsusi  
« Zure meragoatik nahi zaitut hautsi. »
- 9 « Jauna, erranen dautzut garbiki egia  
« Pare-gabia dela zuk egin legia.  
« Ezpazaitzu gustatzen hola egitia  
« Eztut ez axolarik galdurik kargia  
« Horrek eztio mendra nere ohoria. »
- 10 Aspaldian entzun dut nik zaharretarik :  
Gizona duk ageri bere obretarik.  
Froga berri bat orai badugu Pauetik  
Gure herriko Mera Prefetak khendurik  
Eztuelakotz egin nihori kalterik.
- 11 Kantu hauk kantatzian heldu zait gogora  
Bazterretan badela nahasle sobera  
Orzaizen mera faltan izaiten bagira  
Ezkare xerka juanen Abartiagora (\*\*)  
Herrian dugun atxik herriko bandera.
- 12 Mihi gaixtuek ainitz erraiten baitute  
Egia zenbait ere atheratzen dute.  
Bertze zer erran ere segurki banuke  
Horiek entzun eta nork eztuke uste
- .....

(\*) Loewy zaharrena, Angeleterratik Frantziara jinik, Florenzareneko Bordenave-tarren jendakian sartua zen. «Florenzaren borda» izeneko lekuan eraiki zen gero orai ezagutzen den etxea, « Abartiagako jauregia ». Haren semabitxia, Willy (Parisen sortua 1866-an, Orzaizen hila 1944-an) da

hemen aiphatzen. Politikan errepublikaren alderdia harturik (eta ez Eskual-Herriko elizatiar eta jaun gehienek bezala bonapartixten eta erregetiarrena) politikan sartu nahi ukana zuen : ikus *Urzaiñ* ... orr. 283-284. Orzaizen « Lebi zaharra » izenarekin ezaguna zen, eta jauregia bere etxetiar etxearekin « Lebinea ». Orzaizeko auzapheza edo « mera », Lewy-rekin jendakiaz urrundua, Jean-Baptiste Beyrines (euskaraz « Beines ») zen ordukotz.

(\*\*) Izenpetzeko erabiltzen zuen « Loewy d'Abartiague » izena, etxeari emana zizakon eskualdeak zuen euskarazko « Abartiaga » erdalduz. Hemen, nahiz bertsuak eta neurtitzak ongi eta zuzen moldatuak diren, « Abartiago » hori errimaren egiteko (eta trufa arin zenbaitekin ?) aldatua da.

### **XIX. (Sans titre ni date. Manque la première strophe) (\*)**

- 1 .....
- 2 Uztailaren hogoita zortzi arratsean  
Gertatu ichtorioa Iberri kartierrian  
Zer itate izan dugun mekanika arratsean  
Arnorik gabe atchiki gituzte mahainean  
Bai eta gu atera behartu eneatu ginenean.
- 3 Azken ahamena ahoan jalgi ziren mahitik  
Aita semeak eta bertze biga ondotik  
Bazuten edari baitzoan zirritu zilotik  
Gu ginen han trichte hurranago izana gatik  
Egundaino etzen gertatu holako gizon krepautik
- 4 Plazer hartu ahal juan ginenian kanporat  
Ez baitzen berandu sartzeko barnera  
Berekilan han zuten Uhartzeneko (sic) mera  
Ez dira akort juaiten alta berotuta sobera  
Aspaldian hautsi beharra dute elgarri sudurra
- 5 Gizon klase hortarik ez da hainitz gertatu  
Bainan maluruski usu dira agertzen

Berriketako afera oraino dute kondatzen  
 Bere etxeko langileak zituela tirokatzen  
 Holako gizonekin ibiltzea eni etzata gustatzen

- 6 Peon berriak behartu heldu den urteko  
 Aurtengo hotarik ez da biziki harako  
 Seme horrek Irochetatik dituzke bilduko  
 Maitatia balin bada kartierrian ez da penatuko  
 Hori heldu den urtian dugu ikusiko
- 7 Etchetier bila dabila gaizua aspaldian  
 Ikuslierrak izantu iragan urtean  
 Kaiolaz etzazko gustatu nahio zuten aisian  
 Berriak ere jakin nola zen aitzinian  
 Laster kampo izanen zela urte batetik bertzean
- 8 Zortzi garren bertsean nago pentsaketa  
 Zer behautan aipatu huntan sujeta  
 Arbola itzal gaberik leku huntan ez baita  
 Etchekeo anderea behar dut egin ez baita zeta  
 Horrek ere egiten du buzoka bat charmanta
- 9 Konpreni arazi behar diot hitz batez semeari  
 Kasu egin dezan othoi elduden urtean  
 Amodio gehio ukan dezan bere langileri  
 Etche gibelerat juan gabe harturik edari  
 Gizon izaiteko manera charra da hori
- 10 Bertsu hok eman ditut ez batere kantatzeko  
 Bainan orduko manera orok jakiteko  
 Merechi izan ez balitu ez nituen ezarriko  
 Bera ez bada kapable gizontasunaren iteko  
 Etzazko gero bertziak laudatzen ariko  
 (Egarritu niz)

(\*) En feuilles volantes, au même recueil que le n° V et de la même écriture, ainsi que le suivant n° XIX.

Cette dénonciation assez violemment satirique, au prétexte d'un incident lors d'une "batteuse", aurait été écrite ou inspirée par Willy d'Abartiague, le riche notable et républicain radical, contre Jean-Pierre Orpustan (mon grand-père paternel) de la maison Iriberrigarai, coupable de n'avoir pas assez donné à boire de son vin aux travailleurs, et du bord politique opposé. Le "maire d'Uhartzan" à la strophe 4 (ce tout petit quartier ancien de 5 ou 6 maisons habitées n'a jamais eu de maire) est sûrement Baptiste Sabarots (mon grand-père maternel originaire de Hélette) qui avait acquis au début du siècle la maison Orpustan du lieu. Le fils à "Iroxeta" (strophe 6 et 9) est mon père Jean-Michel Orpustan qui avait hérité de la maison Irigoizbehera et s'y était marié avec Marie-Thérèse Sabarots ma mère en 1932.

(J.-B. O.)

## XX. Ortzaizeko Patrioteri agur (\*)

- 1 Bertsu berri hauk emanak dira gure Heskual herrian  
Mutiko gazte baten diela medioz Ortzaizeko herrian  
Jaun horien ihesi dabilta aspaldi haundian  
Noiz harrapatuko dituzten uste gabian
- 2 Berrogoi eta bigarren klasa (\*\*) dute handizki aipatu  
Hura baitute denek ederki maitatu.  
Eskualde guzietan dute ahinitz (sic) ohoratu  
Beharko baitute Amerikanoekin marchatu
- 3 Americanoak beha daude eskualde guzietarik  
Ustez eta sartuko zaiozten zoko zonbaitetarik  
Beha daude prest begiak harmaturik  
Bolontario joaiteko harmak eskuetan harturik
- 4 Ez da untsa Frantzia horien eskuetan  
Ez badu hobiagorik segur harmetan

Ibiliko dira beltzak gostian bidetan  
Promenatuz ederki otomobiletan

- 5 Espainiarat eta etcherat dabilta chimichta bezala  
Pasatuz harroka horiek ahuntzek bezala  
Etsaiaren beldurrez eskualde guzietarat  
Segur egiten baitute promenada ederra
- 6 Etchekandere handi batek zion jouanden egounian  
Ez zirela segur ounsa orai espainian  
Zendako jin bada olako lekutik  
Ez balinbazuten beste arrangurarik
- 7 Zer liguetakoz gizonak horiek egoiteko  
Alemanak ikustearekin dituzte harrituko  
Heien aintzinean lasterka eskapatuko  
Ez baitira zartzen biziki penatuko
- 8 Oraikoan behar dute Frantzia salbatu  
Amerikanoek dituzte holako soldadoak hautatu  
Horiekin behar balinbadute oraikoan jokatu  
Beharko dituzte lepoa eta zangoak hobeki bermatu
- 9 Bide horietarik daude so leiho barnetik  
Ezpainak bihurtuz begiak harmaturik  
Uste gabian ateratuz pentsatzen ez den lekutik  
Iduri baitute debruak harmaturik
- 10 Arrats guziez joaiten dira etchetik kamporat  
Gauazko deskantsuarendako etche zombaitetarat  
Ez baitira segur fida jaun horiendako  
Horiek arrapatuz geroztik ez baitira berehala etcherako

FRANKOTIARRA



(\*) Le titre et la signature ("Franquiste") de ce texte de facture maladroite et prosodiquement irrégulière signalent un arrière-plan politique assez confusément mais nettement lié à l'atmosphère de l'occupation allemande, et sans doute aux résistants alliés des Américains et aux passages clandestins vers l'Espagne, qui y sont dénoncés.

(\*\*) La "classe 42" (ceux nés en 1922) situe le texte en 1942.

## II

### Gerla neurthitzetan (\*)

(\*) Des mêmes recueils manuscrits de Paul Jaunarena et sa famille appartenant à Mme Thérèse Penalva née Ariztizabal. Transcription littérale à l'exception des accents sur "é" qui ont été supprimés.

#### I. Gerlako kantuak (1856) (\*)

- 1 Gerla haundi bat zauku orai akabatu  
Nazione guziek dute plazer hartu  
Bakotcha bere gisan dire ocupatu  
Guzien kalte baitzen baldin iraun balu
- 2 Oriante (sic) guzia jarri zen ikharan  
Rusiako horiek Nagusiturikan  
Beren bizi guziko beretzen zutela  
Frantsesa ez balitz fagoré harat yuan
- 3 Rusiak yendea oy yende gosea  
Beretu nahi luke ikhusi guzia  
Turkiari bere ustez eman du auzia  
Ahantzia baitzuen bazela Frantzia
- 4 Turkiako Soltano edo Emperadore  
Uroski gelditzen haiz oraino halere  
Irestera hindaman Rusiak hi ere  
Baldin Frantzia ez balaik athera fagore
- 5 Napoleon haundia nola Frantziaren  
Yainkoak egin zuen mundu guziaren  
Orienteko parten eta ocçidenten  
Orai yakinen dute zer egin gezaken (sic)

- 6 Napoleon haundiak emanik ordena  
Bilarazi gintuzten Tulone hirirat  
Zazpi ehun lekhutan yuaiteko gerlarat  
Frantsesa bethi prest da hola behar bada
- 7 Pasatu ginenekotz itsaso beltzian  
Inglesa ere ordukotz gurekin ginian  
Rusiako eskualdek yakin zutenian  
Ihesi gorde ziren portuen barnean
- 8 Marinelak leihorrez nola baita urez  
Norat nahi badoazi gerlarat kuraiez  
Anbarkatu orduko armada bazterrez  
Etsai haundi harekin egotu beharrez
- 9 Ala lekhu borthitza zeraukuten alma  
Han eman ginioten lehen atakada  
Ezin hartua zela eman zuten fama  
Guretzat yeus guti zen bi orenen lana
- 10 Berrehun mila bazen han Yaun eta Andre  
Soldadoak bederen bertze haimbertze  
Gu hiru hogoi mila eskas zerua atherbe  
Victoria guretzat zagon halere
- 11 Massiko Yenerala, Rusiako seme  
Bortz entsegu egin duk gaizua hik ere  
Gauaz ala egunaz ibili haiz erne  
Bainan bethi Bousketek atxiki hau ene (sic) (\*\*)
- 12 Lehenik Alma eta Sebastopol gero  
Guziak yuan ginen harat lerro, lerro  
Canrobert yenerala ethorri zen gero  
Haren prudentasuna laudatua dago

- 13 Sebastopol zutela kanoiyez egina  
Hameka ilhabetez ginauden begira  
Filisier zaharra azeri abila  
Rusia itzuli du gainekoa azpira
- 14 Sei mila preso bazen hamaki fortekin  
Untzi nombre haundi bat poertuan berekin  
Ehun mila soldado Aintzindariekin  
Oro galdu dituzte tresor hainitzekin
- 15 Rusiak segurtatzen zuen Malacaffé  
Frantsesak etzuela sekula harturen  
Zer botere ginduen untsa ez zakiten  
Beriz (sic) ez dik guretzat fuerterik eginen
- 16 Rusiako Errege ez hakien bada  
Napoleon haundia nagusi huela  
Nehorekin gerlarik nahi ez huela  
Bainan hik bortchatu duk arma dadiela

(\*) Les dates entre parenthèses ont été ajoutées.

(\*\*) Il faut sans doute lire "eme".

## II. Soldadoak (1911)

- 1 Hemeretzi ehun eta hamekan  
Aphirilaren hogoi eta lauian  
Gerthatu gare Bayona hirian  
Legiaren ordrez behar baikinian
- 2 Hogoi-eta bortz ehun gizon erresebako  
Oro hamazazpi egunetako  
Yin ginen Frantziaren zerbitzatzeko  
Beharra izan balitz gerlaren hasteko

- 3 Bayonan bezi eta bigarren gauian  
Alegeraki ginen partitu treinean  
Argitzian yautsi Tarbeko hirian  
Hantik hunat sartu gerlako ordokian
- 4 Harara heldu onduan gure gogua  
Nun eginen ginuen gaueko loa  
Oihal atherbe batzu largo largoa  
Ohetzat baginien leunik lastoa
- 5 Yatekoa erran gabe nasai zopa ta  
Hartarik landa gero bethi ber plata  
Soldado gaichuaren untzian patata  
Gozo zen egiazki guhaurek egin rrata (sic)
- 6 Gure porte-monnaidek balakite elhestan  
Hek erran liozie egina bertan  
Zonbat aldiz içan diren gure eskuetan  
Aratsetan binauden usu cantinetan
- 7 Gure Capitaina otoy barkatu  
Egiaz nahi naiz emen mintzatu  
Erreserbiztak tuzu untsa tratatu  
Hura arnoari usian sartu
- 8 Egun guziez ihizin gu ginen ari  
Tiro frango eman ez egin zauri  
Tiratzen ginian alta chuchen elgarri  
Sahetsetik beha zeak aise egin du irri
- 9 Gure aintzindari Yaun Capitaina  
Egun penos hetako gure artzaina  
Etzaio guri bezela akitu erraina  
Kito zen errain-eta (sic) zamariaren gainera

- 10 Hara heldu eta lehen igandian  
Debozinez izan ginen gu Lourden  
Konfidantza harturik Ama-Birginan  
Egun hon igaraiten harek lagunt-gintzan
- 11 Ikustiari (sic) yiten gau ilhundura  
Oroc baginien haren beldurra  
Hurran ginien ikusten eroten elhurra  
Eni tinkatzen zaitan bethi sudurra
- 12 Zopatik landa laster lotzen bestari  
Untsa duan bezela Eskualdunari  
Kopla çombait ginian kantatzen elgarri  
Eta ez ginian ukho egiten dantzari
- 13 Han errekontratu dut Bancar-Erramouspe  
Koplaka baita hura parerik gabe  
Hari beha laket içan girade  
Harekin dut ikhasi aphur bat nik ere
- 14 Dolu egin dugu gure laguner  
Lekhu hartan eri baratu direner  
Gu phartitu gira uros eta fier  
Bethicotz erranik "Adios" Camp-de-Gers

Zibertar Soldado (Betteni) Maule

### III. Guerlaco cantuak (1914-1918)

Airea: *Guernicaco Arbola*

- 1 Mila bederatzi ehun, eta hamalauian  
Gerla izigarri bat izan da Frantzian  
Pena haundi batequin, neure bihotzian

- Dolu samina frango delacotz herrian
- 2 Mundu huntan badira, giçon yakintsunac  
Pare gabeac dira, Frantzian tugunac  
Egiazki gainduric, gure ontasunac  
Errespeta araziz beren eresumac (sic).
- 3 Marechal Folch (sic) Frantzian, giçon aiphatua  
Seriosa da eta, buru haundicoa  
Harriturikan dago, Frantses publicoa  
Hori da egiazko, lurreco Yaincoa
- 4 Biba Monsieur Clemenceau zu zira giçona  
Frantziako armada, salbatu duzuna  
Zu zirela medio, dugu ontasuna  
Aberastu behar da, gure eresuma.
- 5 Belgica violatuz, baitziren pasatu  
Nahi zuen bezala, ez zen baliatu  
Erregue gazte hori, ez baitu trompatu  
Hori behar lukete, denec decoratu.
- 6 Alemana munduco, nausi bat nahi zen  
Ideya hori goguan, abiatua zen  
Orai ikusten dugu, trichteki guelditzen  
Araza (sic) maite hori, ongi domaya zen.
- 7 La Marnerat yin ziren, zer zuten goguan  
Egiazki duc dugu, manatzen munduan  
Frantses tigre horiec, han ziren onduan  
Ez baitzuten phentsatzen, hainitzec orduan.
- 8 Bazkari bat Parisen, mantua bazen  
Emperadoreare, han izan behar zen

Ez da dudaric hortaz, erepas (sic) hona zen  
Kafiaren ondotic, Champagnare bazen

- 9 Bazkal ondoan, bombonac nun nahi baziren  
Hainitz presunen daco kaltetan baitziren  
Gure zoizante-quinzac, igorriac ziren  
Freskuac eta onac, izan behar ziren.
- 10 Frantzian dira, munduco giçonic hobenac  
Kurayetsuac eta beldur ez direnac  
Beren devoir guzia, complitu dutenac  
Urhezko arropetan, bezti daizte denac.
- 11 Aiphatu nahi ditut, herritar lagunac  
Eta partikulazki, biba Eskualdunac  
Bayonetac eskuan gau eta egunac  
Ihesi bazoazin, Aleman putrunac
- 12 Arrano nombre handi bat, Frantzian sartu dira  
Beren uste giçian, seur haraguiria  
Nombrea ttipituric, pleinitiac dira  
Berriz ume egiten, hasten ahal dira.
- 13 Hegalkin handi hoyec, norat heldu ziren  
Frantzian ohantzetan, eman nahi ziren  
Arra eta Emeac, elgarrekin ziren  
Dembora izan balitz, umatuco ziren
- 14 Othe daite munduan, Emperadoreric  
Alemanaren lana, egin dezakenic  
Ez du errespetua, nihon Elizaric  
Hobeki erraiteco, hain guti Yaincoric
- 15 Kaizer Hollandan dago, trichte eta nigar



- Harentzat pardonnaric, ez laiteke behar  
Galdatzen baitazcote, hoimbertze milliar  
Pagatu beharco du egun edo bihar.
- 16 Trompatu izan ez balitz, urus izanen zen  
Gure izan guziez, yabetuco baitzen  
Nahiz lana eman du, lur huntaric khentzen  
Frantziako Erregue, Komprintz izanen zen.
- 17 Hor hilac diren semen, amen bihotzmina  
Hori da egiazko, erregret samina  
Salbatua daiteke, hoikien arima  
Ararteko hartzen dut, Ceruko Erregina
- 18 Etsemplu har dezagun, harc egin duen lana  
Hortakotzat behar eta izan Alemana  
Azken hitza ez baita, oraino errana  
Ongui gostaco zaio hemengo fazoina
- 19 Gauza bat haundia da, erran dezakeguna  
Defendatua zela, gure Erresuma  
Bakezco bicitze bat eta osasuna  
Hori da egiazko, gure ontasuna
- 20 Araza brutal hortaz, zer egin behar den  
Uste dugu dembora, arras laburra den  
Beretzat izan balu, Alsace-eta-Lorraine  
Gure buruzagiec ez daukate horren
- 21 Nacione brigant hori, behar eta kasatu  
Hobendun daitekena dena fusillatu  
Egin tuen gaizkiac, behar tu pagatu  
Deusic ez baita behar, hoyeri barkatu

- 22 Orhoith (sic) bedi badela, tribunal bat fina  
Hire condenatzeco, berritan egina  
Hortan salbatzen bada, Kaizeren arima  
Gure Erljionea, ez da arras fina
- 23 Mila bederatzi ehun eta hemezortzian  
Hazilaren hamekan, eguerdi gainean  
Bakezko bandera bat, eman du Frantzian  
Gure etsai haundiac, nigarra begian
- 24 Zuen cerbitzari naiz, armada maiteac  
Zeren izan zarezten, pareric gabeac  
Ez baitzuen mankatzen, zuen kuraiyeac  
Hoic dira egiazko, Frantses Kamtabreac (sic)

P. B., Espelette

**IV a. Herritic bere haurrari  
Eskualdun Ama maiteen ohoretan  
"Gerla tokira" (\*)**

*Airea: uso churia errazu:*

- 1 Seme maitea goicean,  
mezatic atheratzean  
Zure letragnoa izaitian,  
salto nuen bihotzian  
Zu nigarrez egoitian,  
ni aldiz irakurtzian (biz)
- 2 Ez naizela ni lokhartzen,  
derautazu ichkribatzen  
Ez dauzu Amac hori ukhatzen,  
loac ez nau ni ezagutzen  
Etchetic haurra urruntzen,

Amaren loa yoan zen (biz)

3 Nigar gochoric egiten,  
ikhasia dut nic aurthen  
Yaincoac bakharric nau entzuten,  
bertze nehorc ez nau ikusten  
Amac baisic ez yakiten  
Amac zer duen yasaiten (biz)

4 Zuc ilhargia bezala,  
izargno bat hala-hala  
Zeru ederrean daduala,  
nehorc zuc ez othoy salha  
Musuac mil-eta-mila,  
han emaiten ditudala (biz)

5 Urrundu zinen phundutic,  
sainga 'ta sainga athetic  
Gure chakhurra erasiatic,  
ez zauku gelditu geroztic  
Yin zarenean gerlatic,  
yanen zaitu gutienetic (biz)

6 Zombat aldiz keetara,  
ez naiz egotu begira  
Noiz aguertuco zen ene haurra,  
noiz yinen ni besarkatzera  
Gauaz ere bethi beira,  
harrabots ttipienera (biz)

7 Soldado bat ikus eta,  
bihotza saltatzen zaita  
Ni bezembat kechu zure Aita,  
haren grina handia baita

Bertzerikan ezin goaita,  
bertze nehor ezin maita (biz)

- 8 Mahainian yar-alkia,  
gamberan zure ohea  
Dilindan dagon sega handia,  
zutaz mintzo etche guzia  
Heian marrumaz behia,  
norat yoan den nausia (biz)
- 9 Nere buruco ilea,  
da pochi bat churitua  
Bainan, bihotzez berdin gaztea,  
uste dut bethi egoitia  
Zu ikus eta, maitia  
argituco zait begia (biz)
- 10 Lurdeco Ama Birjina,  
Yesus hain maite duzuna  
Onhets othoy, nere bihotz mina,  
ezti nere barneco grina  
Semeetan, maiteena,  
itzul, othoy, nere gana !!!

J. B. Sempere

(\*) Ces sizains monorimes sont mis sur trois lignes au manuscrit.  
L'hémistiche apparente est régulièrement ponctuée d'une virgule.

#### **IV b. Gerlatic nere Amari**

Airea: *Urcho churia errachu* (sic).

- 1 Ama maitea gerlatic,  
bi lerro hauc bihotzetic

- Heldu zaizkit bezala gogotic,  
igortzen daizkitzut zilhotic  
Nigar ezti bat begitic,  
eskapatzen zautalaric (biz)
- 2 Gauerdi da Ama hona,  
ichil dago Alemana  
Gau bat ederra, gau eztiena,  
gauetan choragarriena  
Ene bihotza zu ganat,  
hartu-ta deramana (biz)
- 3 Neure harma eskuetan,  
othoizgno bat ezpainetan  
Zer gau gochoa nic deramatan,  
ama zurekin solasetan  
Eta bihar erreketan,  
zer bihotz gorra duketan (biz)
- 4 Ilhargiac aintzinean,  
behatzen daut hor airean  
Ilhargi bera Ama herrian,  
zuri beha dago Ceruan  
Zombat uros ni gau huntan,  
hor banintz ilhargi hortan
- 5 Ama hona zu oherat,  
oraikotz yuana zira  
Oherat bainan ez lokhartzerat,  
nigar-eta-nigar hurtzerat  
Nigar horien chukatzero,  
yin nindaizte ni alderat (biz)
- 6 Zombat aldiz hor etchian,

oherat ez nahiz ni yuan  
 Musu bat eman gabe sekulan,  
 Ama gaichoari matelan  
 Baten orde lorietan,  
 Mila baluzke gau huntan (biz)

- 7 (...) (\*)  
 Hain maite nuen zure ilea,  
 hainitz churitu othe dea  
 Ene Amaren begia,  
 nigarrez hurtu zireia (biz)
- 8 Bainan ez amatto hona,  
 ez zireia Eskualduna  
 Ez zira sobera nigar egina,  
 gelditu zira bihotz-duna  
 Ailtcha yaincoaren ganat,  
 othoitzetan samurrena (biz)
- 9 Yinen gira gu guerlatic,  
 Yainco horrec lagunduric  
 Yinen gira copeta goraric,  
 eskua lorez ihaurric  
 Etsaia guc casaturic,  
 ez da izanen gerlaric (biz)  
 .Fin.

(\*) Ligne blanche au manuscrit.

## V

**Ehun eta berrogoita-bigarren Territorialaren  
balentria Mila bederatzi ehun eta hamalauko  
gerlan**

*"Anton eta Maria"*

- 1 Mila bederatzi ehun eta hamalaugarrena  
Aspaldico urtheric, orhoit-garriena  
Gerla izigarri bat, ekharri daukuna  
Abostu lehenean zuen hastapena  
Geroztic hainitzentzat bada zombait pena
- 2 Abostu lehenean declaratu gerla  
Hanitzec uste zuten laster fini zela  
Gure Armada orai tresnatua dela  
Berzec ere izanki tresnac guc bezala  
Ganderailu da eta oraino gibela
- 3 Gibela izaitea daite contsidera  
Ikusiric hastean ibili manera  
Frantses yeneral zombait contrariathera (sic)  
Heic (sic) lagunduz etsaiac jauziric gainera  
Fundikatuz ekharri gaitu Pariserat
- 4 Goure yeneral nausia yestuer ohartu  
Lagun tzarrac utziric hobe batzu hartu  
Hil edo biçì, orai behar da bihurtu  
Itzuli bezain laster, etsaia zafratu  
Yin bidez lasterka, ziloetan sartu
- 5 Ziloac bazituzten, aspaldi eginac  
Zernahi phentsatzen du, malezia duinac (sic)  
Guc ere hec ikusiz, egin etsaminac  
Ein ditugu ziloac, etsaien berdina

- Bizitzen ikasten du, hola behar dinac
- 6 Ziloetan gabiltza, guziac aldizca  
Azpi-ereditaraino, saltsan igerica  
Sartuz geroz lau egun, han kiki gordeca  
Zembait aldiz, Bataillun, itzuli-purdica  
Zombat tristezia den, ez daite explica
- 7 Tristezian direnac, badire bakharrac  
Bainan oroz gainetic, ezkondu zaharrac  
Etchian dituztenac, Andre-eta haurrac  
Urrunera senditzen heien dei-adarrac  
Miserian direla, Aita han beharrac
- 8 Berroi-urthetan hemen, aithor dut egia  
Giçonac ez daukala, arin arphedia  
Sasoinarean phartetic, hoin borthitz negia  
Etsaietarie aldiz dena larderia  
Zeren eiten daukute, hainitz larderia
- 9 Tzarkerian da bethi, Aleman arraza  
Ez dute guc bezala, hec naturaleza  
Ami Frantze guri oihu, bakezko solasa  
Sinetsiric burua, ager bagindeza  
Tira lezakegute, laster mitraillosa
- 10 Haste hartan, sinhesten gintuen sobera  
Ustez hobea zuten, beren caractera  
Guri oihuz giniten, zilhotic athera  
Prest zirela yiteco, hec Baonetara  
Gu yalgi araz-eta, bethi yoko bera
- 11 Holaco yoko frango, egiten zaukuten  
Bestaldi batzuz oihuca, tranquil yalgi ginten



Berac ere yalgita, lurrean etzaten  
 Heien ginetic bestec, chehatzen gintuzten  
 Mitraillozac orduco, miran baitzituzten

- 12 Etsaia ari zauku, ahal oroz gaizki  
 Bainan halaric ere badu lanic aski  
 Hastena gure baten, han baziren zazpi  
 Orai gure heinera, yaussia da naski  
 Canoi hobiac tugula, aithor dute clarki
- 13 Canoiac baditugu, pare gabecoac  
 Hiruetan hogoi'ta, hama-bortzeacoac  
 Nahiz etsaiac dauzcan, fantesiazkuac  
 Adituz geroz gure, Canoien orroac  
 Zilotan sartzen dira, oro harrituac
- 14 Canoi, harma, bayonnet, mitrailloz, soldado  
 Nombre bardin ez dira, gu baino gehiago  
 Nombrez nausi zen eta, gu baino prestugo (sic)  
 Gu muntatuz geroztic, izarian dago  
 Batailan ageri da, nihun ez aisago
- 15 Abenduaran hogoian, bataila batian  
 Balentria haundiac, zituzten hastian  
 Indioac ginituen, trantcharen barnian  
 Anglesac aldiz heien, gibleco-aldian  
 Abiatu zauzkuten, oro aintzinian
- 16 Guc gibelagotic, gintuen ikusi  
 Gure zaintzaleac, hor, lasterka ihesi  
 Landes eta Eskualdun, hantche ginen hasi  
 Etsaiac guretaco, ez ziren nagusi  
 Bi hoi-ta lau orenez, ez ginen berezi

- 17 Astehart-aratsian, finitu bataila  
Bethi yuan ginduen, gure abantaila  
Gure bataillonnean, ein zen apela  
Berrehun-eta zombait, giçon falta zela  
Ez phentsa, etsaietan, gutiago zela
- 18 Hobeki hunkia zen, bai etsai bufona  
Ez ditugu gorde, ein ahal duguna  
Gurekin artzia, ez zuten fortuna  
Bayonnetec ein dute, zombait hara-huna  
Beren gostuz dakite, nor den Eskualduna
- 19 Nola baikira hemen, hainitz Errechimendu  
Ehun-eta borroi-ta (sic), bigarren gira gu  
Zahar izana gatic, badugu moimendu  
Etsaiec es daukute, gure omena khendu  
Chianchico bataila, orhoit izanen dugu
- 20 Guillaumec ere nahiz, irabazi zalhu  
Artean hatzeman du, ainhitz articulu  
Guardia abiatuz, ez dakion dolu  
Oroc hastio dute, ez da miraculu  
Giçonac ez du behar, hainbertze urgulu

Fin

Martin Larramendy

## VI. "Deserturra"

Airea: *Giçon ziburra ?*

- 1 Biziaren Primadera, harmetara yuaitia  
Zorigaitzic durpheena, zitzautan yasaitea  
Desertatuz uste nuen hobeki izaitea  
Phentsamendu zoroa, hic egin naukan kaltea

- 2      Buru-colpe itsua, hic egun batzuen gatic  
 Sekulaco zertaco nauc galarazi Herritic  
 Aita-Ama haurrid' eta adichquiden artetic  
 Gehiago othe naitec, ikusiren biçiric
- 3      Gaizkiric den gutienic, egin gabe nihuri  
 Gaichtaginic haundiena, naizela dut iduri  
 Zer malhura, gehiago, ez zautala zilhegui  
 Agur baten erraitea, nere sor-lekhuari
- 4      Nere baithan gozo onic, orai ez da sekulan  
 Bihotzeco har barequin, izpiritua alhan  
 Ametsetan ere bathi, mugarien ikharan  
 Bethi beldur zangoa, aintzinegi sar dezadan
- 5      Gauaz eta egunaz dut, begien aintzinean  
 Sor etchola nere hura, larrain bichkar batean  
 Bichta-bichtan hantche dago ithurri bat aldean  
 Oh! nic nuen zoriona, han biçi nintzarian
- 6      Non zaituztet, mendi urdin, chirripa, ithurriac  
 Nere behi, ahuntz eta ardi bizkar guriac  
 Non lehenago nere bide, chingola iduriac  
 Amets histu bat, neretzat, zaretenac guçiac
- 7      Besta egun herrikoan, nere gazte lagunac  
 Chirula yoz, badohatze kantuz plazara denac  
 Gaur pilotan, bihar dantzán, hekien atseginac  
 Ni hetaric urrundua, zer nere bihotz-minac
- 9      Oh! ezkila! hic neretzat lehenic yo huena  
 Hic orobat yoko bahu, nere azken orena  
 Hire itzalean nian, biçiric urosena  
 Aditzean mendi hetan, hire hats-beherena

- 10 Nere Ama orai urrun kausitzen dut ni ganic  
 Gehiago ez dut hemen haren begitarteric  
 Nihor! ez adichquide bat, nitaz artha duenic  
 Nihor! nere oinhazetan, kontsolatzen nauenic
- 11 Hemen gaude arrotzetan, ni hiltzen naizenean  
 Bihotz-minic gabe naute ezarriren lur-pean  
 Norc, daut gero, noiz edo noiz, orhoitzapen batean  
 Loretto bat pausaturen nere tomba gainean
- 12 Ur chirripa ez da galtzen, nihoiz bete ohetic  
 Eta ere harroca, sartua den menditic  
 Hec bezela sor-lekhuaz, amodio izanic  
 Zuhur denac kanta beza bethi bere Herritic  
 .Fin.

## VII. Pertsu hauc liburuekin behin ere samurtu ez den batec eginac

- 1 Cominiatuz geroz, kampoan egonic  
 Gibelerat yin nintzen, soldado beharric  
 Burhaso haurridequin gosatu (sic) nahiric  
 Hogoi egun baizic ez handikan yalgoric
- 2 Banakien ba hunat heldu bezain sarri  
 Zorra pagatu behar zela Frantziari  
 Agurrac egin eta ner-etchecoeri  
 Berheala (sic) soldado ninduten igorri
- 3 Emanen ninduten beraz hor Infanterian  
 Mont-de-Marsan, hogoi-ta-amalaugarrenian  
 Urthe batez ontsasco "entrenatu" naute  
 Surat abiatzeco, lehoinaren pare.

- 4 Itsasoa ezti da, untzian plazer da  
Soldadok' arribada ez da gauza bera  
Bakea zelarikan nintzen alegera  
Gerla hasiz geroztic tristeric nabila
- 5 Gerlac dautalarikan, bihotza ilhuntzen  
Alegeraric deus ez nakike aiphatzen  
Nahiz ez dudan, arras oraino etsitzen  
Lanyer handiac hemen, ditugu pasatzen
- 6 Badakizue azkar ditugul' etsaiac  
Alamania eta Otrichia biac  
Angleterra, Rusia, berekin Frantziac  
Ez dauzka izituric heien garhasiac
- 7 Iragan buruilaren hogoi-ta bata zen  
Orduan hasi nuen etsaia frogatzen  
Alaman abre tzarra, biziki azkar zen  
Gu gure lurretaric, kasatzera yin zen
- 8 Aintzin sahetsetaric, hartuz itzulia  
Moztu nahi zaukuten ihes egitia  
Gu ihesari eta tiroca etsaia  
Harritzeco zen hango, odol ichurtzia
- 9 Geroztic hemen gare lerroca tranchetan  
Aleman tzar hautaric, ehun bat metretan  
Gauaz eta egunaz bethi ernerikan  
Berriz heldu badira kontr' egitekotan
- 10 Hemen ikusten dugu, miseria zer den  
Yan edanikan gabe, egunac igaiten  
Hotzac eta bustiac, gaituzte chahutzen  
Holakoric nehoric ez dut desiratzen

- 11 Umea orhoit Amaz et' Ama Umeaz  
Orhoit Burhaso onac oi zuen semeaz  
Orhoit haurride onac oi zuen anaiaz  
Nic ez dut gutiago, phentsatzen etcheaz
- 12 Badakigu guziec, hil behar dugula  
Hortaco Yainco Yaunac egin gautuela (sic)  
Hemen ichurtzen badut, nic nere odola  
Etchea bichtan gabe, oi dolu nukela
- 13 Nere anaya hor dut ni bezala gerlan  
Hura bederen banu noizpait enekilan  
Ikus ahal baneza gaichoa sekulan  
Zer plazerra ginuken, elgarri besarkan
- 14 Banintuen ba ere herrian lagunac  
Gazte-ta adineco, adichquide onac  
Orai dudaric gabe, suan gehienac  
Goraintzi bat hemendic, zuer bihotz-dunac
- 15 Elizan ttipi danic guc ikasi gauça  
Mende lazgarri huntan dezagun probetcha  
Guziac fidel egon Yainco Yaunarentzat  
Harec emanen derauku, Cerua saritzat
- 16 Sortzez Iholdiarra, beraz Eskualduna  
Ezagutzen dut ongi, herrico-bazterra  
Ez ekharriric ere urhe-ta zilharra  
Etchera banindadi, oi, ene fortuna!

Beñat Pocholu.

## VIII. Murde Dageri (sic) "Ahazpandarretaric"

Airea. *Etcheboun* (sic) *eta Otchalde*.

- 1 Goraintzi Murde Daguerre Hazpandarretaric  
Milesker hainitz ere, denen bihotzetic  
Zurez borondatea hola ikhususiric  
Nola orhoitzen ziren gutaz Habana-tic  
Zuretzat Amodioz gaudezu betheric
- 2 Dudaric egin gabe, gauça ageria  
Bihotz bat baduzula pareric gabea  
Kontsideratzen giçon guerlaria  
Phentsatuz badutela usu egarria  
Hortic igorritz zombeit trangoren (sic) saria
- 3 Zuc igorri diruaz ontsa yan edanic  
Gerlariet badute ederric eginic  
Badakigu guziec, frangotan entzunic  
Zure esker azkarric gerlan arizanic  
Ezarri dituztela, etsaiac etzanic
- 4 Gerlan ari ez diren, soldadoac ere  
Zu zarela medio, ber gisalat daude  
Solasetan ardura erraiten daukute  
Zuc igorri dirua, izan ez balute  
Usu baluzketela ainhitz nahi gabe
- 5 Murde Daguerre huna, zuc igorri diruac  
Hola eguiten ditu bere efetuac  
Kontsolaraziz ongi gaizo soldadoac  
Gogotic egiteco, etsaier guduac  
Bai eta sutic campo diren zerbitzuac
- 6 Erran diozu Yauna, hala den bezala

Gerla huntan Frantzia laguntzen duzula  
 Guc aldiz Hazpandarrec, segur zu zarela  
 Pobreroi karitate egiten modela  
 Holaco bihotz-hunac, arraro diela (sic)

- 7 Bi urthe iraganic, hirugarrenera  
 Gerla hasia dela badoha heltzera  
 Aintzina segituric, bakotchac sail bera  
 Segur emanen dugu etsaia lurrera  
 Bake hon bat yin dadin, laster gutartera
- 8 Bake hon gozo hura zaukularic heldu  
 Denec nahico dugu, goraki galdata  
 Familiarequin, hunat uzteco zu  
 Urrundanic egina duzula zerbitzu  
 Guziec lekhucotzat, frogac baditugu
- 9 Bici gireno bethi gira orhoituco  
 Zer amodio duzun herritarrendaco  
 Habanatic yitea, gustu duzuneco  
 Zahar gazteac gira prestic paratuco  
 Behar bezela zure, errezebitzeco.

Chetre - Hazpandarra.

### IX. Gerlaren ondorio.

- 1 Gerlatic yin esku lan, pullit, begikoac  
 Alegeratzen ditu hits dauden gogoac  
 Ikus bagintza, yauziz, gure putikoac  
 Erhaztun bat erhitic, chut buru kaskoac
- 2 Gogoraturaz lehengo, zerbait gerthakari  
 Bihotza hausten zaio, lagun maite hari





## X. Gerlaren ondarra.

Airean: *Lurraren pean sar nindaiteke.*

- 1 Kopla batzuez ahantz-arazi, nahi ditut bihotz-minac  
Chede hon hortan lagun nezala, bai Ceruco Yainco onac  
Omore hona kanta dezagun, alegar gaiten denac  
Ezen gan dire behin bethikotz, oren beltz luze ilhunac  
Eta ethorri orai denentzat, bozkariozko egunac.
- 2 Pariseraino ya hurbildua, urguilu hantuz bethea  
Iduri zuen garhait zuela, gure Frantzia maitea  
Bere burua enganatu du, ez zen ez haren ustea  
Aitzinat bezen laster gibelat, egin behar izaitea  
Hire Ametsa hambat ederra, non duc Aleman tristea
- 3 Zafraldi bat izana gatic, oraino hainitz azkar zen  
Berrogoi urthez bildu indarra, ez da errechki suntsitzen  
Lur pean zilo batzu eginic, hala zakien nausitzen  
Lau urthe haundi egon da gure, lur ederraren zikintzen  
Debruac lanac eman dauzkigu, zilotaric atheratzen
- 4 Denen artean bat handiena, dut bakarric aiphatuco  
Verdun-go gudu izigarriez, nor ez da nor orhoituco  
Gure soldado ederrec zenbat, odol duten ichurico  
Alemanari oihu eginez, hemen ez haiz pasatuco  
Alferretan han bere indarrac, galdu ditu sekulaco
- 5 Entseu frango egin du gero, gu eman nahiz menean  
Haren gerlaco tresna tzarrekin, izatu gare lanean  
Erresuma hon batzuec lagun, oro batasun onean  
Indar haundiac amor eman du, zuzenaren aintzinean  
Zembat zakarra bahintzen ere, erori haiz azkenean
- 6 Hoberenetic sekulan gerlac, ezdu yeus onic agertu

Bainan holaco izigarriric, ez ginuen guc amestu  
 Aleman tzarra hire izena, bethierekotz duc belztu  
 Basakeriaz mundu guzia, nahi huen ikharatu  
 Eguna orai hemen duc, denac beharco dituc pagatu

7 Hiriac erre elizac aurdik, hil emazte eta haurrac  
 Zer sarraskiak zer bihotz-minac, doluac eta nigarrac  
 Familietan zer bihotz-minac, gorritu arte bazterrac  
 Bizi direnac errekan eman, zer ziren yasan beharrac  
 Guillaum'urdea horra zer diren, hic egin obra ederrac

8 Zembat soldado hil-arazi duc, adinic ederrenean  
 Urrikalmendu guti izan duc, hic bihotzaren barnean  
 Gaztiguari egin dezokec, ihes lur hunen gainean  
 Bainan eguna etorriko duc, lur hau uzten dukanean  
 Guziez kontu hic emaiteco, Yainkoaren aintzinean

9 Etsaiac hartu izan baginitu, bere aztapar tzarretan  
 Haren esklabo beharco ginen, ibili dena herrestan  
 Zuec, soldado, biçia eman, duzuenac lorietan  
 Chuti zaitetzte gauça eder hau, ikusteco egun huntan  
 Zuen odola ez duc izatu, ichuria alferretan

10 Lagun maiteac, egin duzue, etsaiaren garhaitzea  
 Yauna, agian, hau izanen da, azken odol ichurtzea  
 Eginbidea orai denentzat, lanari azkar lotzea  
 Gocho diteke bai guzientzat, herri huntan bizitzea  
 Kanta dezagun errepikatuz, goraki: Biba Frantzial!

## **XI. Desertor batec emanac Presondegian**

1 Cardinalec umiac bazkatzen ahora  
 Caiolaco choria heldu zaut gogora  
 Sala eder batean bainago ni gora

Sudurra ezin pasa chilotic campora

- 2 Etchetic phartitzean hiru lagunekin  
Yaun chapel luce batzu nituen enekin  
Amarratu ninduten burdin kadenequin  
Seguitzen ahal zira tranquilqui gurekin
- 3 Tribunalean naute ongui akusatu  
Gerla dembora hura nun nuen pasatu  
Zerendaco ez nuen etsaia kasatu  
Bertzec bortha zerratuz, behar naiz usatu
- 4 Etche haundia dugu azkarki egina  
Leihoac ttipi, eta doblezka berina  
Azpia harri lauzaz, hala-hala gaina  
Arte huntan dagonac, ez du hainitz maina
- 5 Egun eskaler, pausu, azpitic gainera  
Lekhu arinean da, bai gure gambera  
Plaçer da iraitia, lastozko ohera  
Estomaca denean, cargatzen sobera
- 6 Estomaca ilhunic, aharrosi luze  
Hemen, gisa huntara, tratatzen gaituzte  
Lege berri hobe bat, ez, baginu uste  
Horrela biçitzeac, lanac bailituzke
- 7 Batean chutic eta bertzean etzanic  
Bethi neketan gaude, egin gabe lanic  
Lana izaiten dugu, saryantac emanic  
Bainan ez da eguiten, bortchaz gauça honic
- 8 Gaztetasunac badu, etsai suerte hainitz  
Ezagutzen tuanez, declaratzen bainiz

Izpiritua gerlan libro izan nahiz  
Bortchaz penitentzia eguiten ari niz

- 9 Primaderan dira choriac cantari  
Bainan bertze batzuec, sasoin contra ari  
Batere ez naiz lotsa, aurthen neguari  
Atherbean segur dut sop' eta haragi
- 10 Dembora luze doha, condatur orenac  
Contsolamendu bat du, malurosa denac  
Lagunen izaitea, ahanzteco penac  
Hemen guertatzen gira, sujet hoberenac
- 11 Huna hameka pertsu, presondeico lana  
Numbait erori behar, ihes dabilana  
Luzatu nuen bainan huna hatzema  
Eta ez naiz baxharra, trompatzen naizena
- 28 - 6 - 24 (\*)

(\*) La date en fin de texte est celle du recueil manuscrit de Paul Jaunarena écrit vraisemblablement durant son séjour en Argentine.

## **XII. Gerla eta Gerlari**

### **Eskualdunen bihotza.**

**(1939)**

- 1 Mila bederatzi ehun eta hoita hemeretzian,  
Azaruaren zazpia zen astehart atsian,  
Bersu zonbeiten ezartia, oi alegrantzian,  
Deliberatu dugu Eskualdunen artian,
- 2 Eskualduna gertha dadin edozoin lekhan  
Bethi alegrantzia da heien bihotzetan,  
Ez izanik ere askar (sic) frantses lengualetan,

Yar arno husten dugu ostatuetan

- 3 Alegrantzia izanik ere arrai gutartian  
Plazer handiagorik badaite mundian  
Penak gorda ditzagun, ahal dugunian  
Alegera dadin yendia Eskual-Herrian.
- 4 Eskualdunak klarki mintzo dira Alzazetik  
Izanik ere urhun (sic) beren etchetarik  
Nahiz lanyera baden gu giren lekian  
Etsaiak baditugu lurrian airian
- 5 Aipha desagun (sic) gure erechimendia  
Cen (sic) dix sept Tolosakua orok ezagutia  
Gurekilan ditugun tresna lazgarriak  
Suntsituren dituste, otheta herriak.
- 6 Barda gordiak ginen chituak bezala  
Avionez estalia sen zeru zola  
Suertia alde badugu, barda bezala  
Bochak jeutsiren ditu zitzerra bezala
- 7 Kapitain bat badugu, zibilan apeza  
Harek emaiten dauku igandetan meza  
Jainkuak gure artean luzaz utz baleza  
Gerlaren bururatzeko es giduzke lotza (sic)
- 8 Olako (sic) aitzindariak izanez geroztik  
Bortchatia da armada, egoitia sutik (sic)  
Eskualdunak ya ez du lanjerain beldurrik  
Erlisione saindua argituz geroztik
- 9 Noiz nahi gure artian lanjerrak badire  
Guk phasatu orenez estonatuak gire

Gure zaldiekilan jeitu ikusiak gire  
Alimale gogorak, gur' eskuetan dire

- 10 Phasatu tugu gauak, ba eta egunak  
Eskualde ederrak ba eta oihanak  
Bai euri eta lohi, oren lasgarrienak  
Halere ez gira lotsatu Eskualdunak
- 11 Kantu ok egin ditugu, oi alegrantzian  
Jutsi eta Lakarra ditut nere kilan  
Landibartar oriek ere, badakite koblan  
Ofizioa ez aise uzten, izanik ere gerlan
- 12 Hiruak bagoatzi ongui elgarrekin  
Etchekeo ohidurak atchikiz gurekin  
Othoitz egiten dugu, bihotzain erditik  
Graziak ardiesteko zero gorenetik  
Fin.

### **XIII. Hitleren Cantuak (\*)**

- 1 Bertsu batzu baditiat Hitler hiretako.  
Ahalgerik gabe segur guzien kantazeko (sic)  
Zer ideietan hintzen munduaren dako.  
Ahal izan bahu guzien nagusi yartzeko.
- 2 Lehenik bazterrak nahasi hintuen Espainian  
Gero berritz tropak sartu Otrichian.  
Handik lekorat aitzina Checozlovakian.  
Azkenekoz martirak eginez horra Polonian.
- 3 ...deran hintuen ere Danemark eta Hongria  
Holanda Belgika bai gure Frantzia  
Hola milikatu izan bahuke Russia

Gogoan hala haukan izaitia auzia

- 4 Borchá legerat bilduak hire lagunzeko  
Roumania, Boulgaria, Hongria eta bertze asko  
Hik hilarazi presunak ez dituk ez berritz piztuko  
Hola egin krimak nork othe daizkik barkatuko
- 5 Zer miseriak ez ditukan emaiten munduari.  
Adineko ararteko bai eta haurreri.  
Heriotzea aitzinean chahar ezin dueri.  
Beren denborako ahultasuna goserik dagozin umeri.
- 6 Bersalde (sic) hor ditukanak hik hire aspiko  
Presuner langile gaichoak ez othe dituk libratuko  
Nik banu podorea hire eskumikatzeko  
Ez bihuke denbora haundirik chutik egoiteko.
- 7 Menderen mendetan ehaiz izanen ahantzia.  
Hizen bezalako kriminel nahasia.  
Debalde izanen duk nik uste hite salbatzia.  
Ifernu zolan duk hire lekua Hitler isusia. (sic)
- 8 Badakik bai segur galdua dukala bitoria  
Satanek ereman duela hire ohoria.  
Benito Mussolini hor dukalarik aldean yarria.  
Bi mundu hondazale zer kriminel paria.

Fin

Jean-Pierre Erguy.

"Cambo. B.P."

(\*) Quelques graphies ont été rectifiées dans ce texte.



#### XIV. Baigorriarak Irunen. (\*)

- 1 Mila bederatzi ehun eta beroigta (sic) hiruan.  
Iduriz mundua da beticotz guduan.  
Etsai beltza sarthu da gure sor lekhu  
Eta hargatic gira gu kanporat yoan.
- 2 Zombait pertsugno beraz gure buruari  
Begira hemen gaude hamarak elgarri  
Martchoaren hamarean utzi dugu Baigorry.  
Arinara pasaturik muga izkin hori

(\*) Semble incomplet. Même remarque qu'au texte précédent.

#### XV. Amodioa herraren erdian (\*)

Airea: *Sor lekua utzi geroz etc.*

- 1 Ichtaño bat ichildurik, berriz hasi da gudua,  
Ortzi karraskez bezala daldarikatzen zerua;  
Iziturik sartzen jendea beren etche zokoetan,  
Etsairen kolpe tzarretaz beiratzeko esperantzan.
- 2 Obuz uhar lazgarria zapartatzen erortzean,  
Lurra zalu iraulia beren bolido gaitzean,  
Porroskatuz etche paretak airatzen peña muthurrak  
Peningarri zen ikustea gauzak hola erraustuak.
- 3 Chahar batzu karriketan badoatzi erdi mainku,  
Leihorrerat ihes egin ezin dute aski zalu;  
Han hemenka zombait emazte haur hil baten aintzinean  
Belhauniko dautzi (sic) nigarrez bala chichtuen erdian.
- 4 Arrailkatu etche huntan nor ote da gorderikan;  
Bihotzminik handiena ikus eta niri eman;

Ama chahar, andre gazte bat haur ttipia besoetan,  
Chakur churi bat kokoriko han zagozin beldurrean.

- 5 Emazteak polikiño perekatzen haur maitea,  
Ontasunik handiena harentzat bere umea,  
Goiti beha ama chaharrak arrosorioa erraiten,  
Chakurñoa icil ichila horieri so egoiten.
- 6 Zirimolan bala batek ama chaharra hatcheman,  
Kopetatik odol matela behera joan;  
"Jesus Jauna, barkha nezazu" erranez hila erori,  
Eskuetan arrosorioak ditu halere atchiki.
- 7 Haur ttipia pausaturik, ama hari laster lotu,  
Hatsik gabe ikuseta luzaz gero besarkatu;  
"Adio beraz, adio amatchi, zerurat chuchen zoazi.  
Ba kharrikan haurño batekin gudu gorrian utziz ni".
- 8 Bainan horra, ama ere, bala galduz hunkitua,  
Ezagutza galdurikan lurrari han itzatua;  
Orai dire elgarri buruz, beren begiak hetsirik  
Odol putzu baten erdian bi emazteak etzanik.
- 9 Chakurraikin haur ttipia jostetatu ordu arte,  
Bi eskuak zabaldurik ama goitan dela uste,  
"Bainan ama, zendako zira luze luzean etzanik?  
Samurtia balin bazare, ez eman niri obenik."
- 10 Haur maiteak du poliki bere ama kilikatzen,  
Ustez eta hunek dakon, lokartuana egiten,  
Irriño bat amaren ganik nahi luke bada izan,  
Bainan bere esku ahulek perekatzen debaldetan.
- 11 Gerochago gosetua, galdegiten du ttittia.

Gaicho haren atzartzeko garrasiaz hasten haurra.  
 "Atzar othoi, ama maitea, emazu niri esnea,  
 Ez dezaket nik gehiago iraunaz nere gosea."

- 12 Errabian lotu, eta, tiratzen haren biloak.  
 Herrestatuz odolean, emokatzen soinekoak,  
 Pausaturik bere burua amaren bulhar gainean,  
 Emekiño lohak hartzen, esnearen esperantzan.
- 13 Beharriak aphalduak, chakur tcharra aintzinatu,  
 Horen matel borobilak bere mihiz milikatu;  
 Bere beren haren aldean, egonen da kokoriko,  
 Ikusteko hunen begiak noiz direnez idekiko.
- 14 Azkenekotz obuza bat etche gainerat erori,  
 Urratzean pekotz goiti barne guzia ezarri,  
 Gizon tzarren abreriak jende gaichoak suntsitu,  
 Ez berechi nahi zutenak zilo berean ehorztu.

Ramuntchito.

(\*) Le tableau dramatisé de ces quatorze quatrains à rime suivie (et non monorimes comme les précédents) rappelle le célèbre "Guernica" de Picasso et semble né du même épisode de la guerre d'Espagne, ce que souligne aussi le prénom à diminutif espagnol de la signature. Elle est complétée par la mention d'une autre écriture: "Ramuntchito. Espagnol, Espainia", et quelques mots qui s'achèvent ainsi: "Madame Marie Mirasou Jaunarena. Maison Gastenania. Ossés BP".

**Table des matières.**

1. Orotakoak -----	p. 2
II.. Gerla kantuak -----	p. 42